

Euskararen etorki eta ahaideak: datuen analisia

R. L. Trask

Sussexko Unibertsitatea

Itzultzailea: Txipi Ormaetxea

R.L. Trask irakasleak, artikulu honetan, euskararen etorkiez dihardu. Jakina da jende ugari saiatu dela euskarari –Mendebaldeko Europako hizkuntza ez-indoeuropar bakarrari– ahaideak aurkitzen. Trask oso kritikoa da egin diren azterketa gehienekin, sarri euskarari buruz ezer gutxi dakien jendeak egin dituelako, eta gehienetan euskararen historiaurre fonologikoaz dakiguna kontuan hartua izan ez delako. Egin izan diren proposamenetan interes handiena erakarri dutenak aztertzen ditu: europa zaharra, indoeuopera, iberiera, minoera, etruskoa, piktoera, sumeriera, kaukasoar hizkuntzak, akitaniera, afrikar hizkuntzak eta denekaukasoar makrofamilia. Guztietan seriotan hartzeko bakarra akitanierari deritzo, «fruiturik eman duen proposamen bakarra» bere hitzetan. Hortaz, akitaniera euskararen antzinako forma bat dela onartzen du. Baina, bere ustez, euskarak gaur egun beti izan den bezain bakartua jarraitzen du.

Professor R. L. Trask is the author of an article about the origins of Basque language. It is well known that many people have tried to find some familiar partner for that the only non indoeuropean language in western Europe, Basque. But Trask is very critical with most of the researches, because they have commonly been made by people that have little knowledge of Basque, and because most of the times they haven't taken into account what we know about the phonological prehistory of this language. He studies those which, among all proposals made, have deserved a major interest: ancient European, Indo-European, Iberian, Minoan, Etruscan, Pictish, Sumerian, Caucasian languages, Aquitainian, African languages and the Denekaucasian macrofamilia. And the Aquitainian one is the only serious proposal in his opinion, «the only one that has borne any fruit» as he says. There fore he accepts Aquitainian language is a primitive form of the Basque language. But, in his opinion, Basque language nowadays remains as isolated as it has always been.

0. Sarrera¹

Gauza bat² baldin badago kaleko jendeak euskararen gainean “ezagutzen duena”, hori da hizkuntza hau ez dagoela inola ere besterekin ahaidetua. Euskarari buruzko ideia arrunt gehienak ez bezala, honako hau egia da. Hizkuntzaren antzinako forma identifikatzeko moldatu bagara ere (horretarako ikus 6. atala), euskara beste edozein hizkuntza bizi zein hilekin genetikoki ahaidetua dela konbentzitzeko moduko froga txikiarik ere ez dago. Literaturan maiztxo aurki daitezkeen kontrako baieztapenak ziurtasun osoarekin gera daitezke aintzat hartu gabe, artikulua honetan emango ditudan arrazoiengatik.

Euskarari inolako ahaiderik aurkitu ezinaren porrota ez da ez saiatzearen ondorio. Etorki eta ahaide posibleei (edo haien ezari) buruzko espekulazioak ugari izan dira gutxienez XVI. mendeaz gero. Garai hartan J. J. Eskaligerok, bere sailkapen ezagunean, euskara ama-hizkuntzatzat jo zuen, alegia, beste ezeinekin ez ahaidetua, eta Andres Poza euskaldunak euskara iberiar Penintsula osoko antzinako hizkuntza indigena zela defendatu zuen. Horrelako espekulazioak mendetan ugaritu ziren, baina XIX. mendean hizkuntzari buruz burutu ziren zenbait lan deskriptibo fidagarriekin soilik etorriko ziren hipotesi esplizituagoak, nolabaiteko datuetan oinarrituak. Harrezkero, ahaideen bilaketa etengabea eta arrunt bariatua izan da: zail da norbaitek inoiz ahaidetzat aldarrikatu ez duen Mundu Zaharreko hizkuntza bat edo hizkuntz familia bat aipatzea, eta Mundu Berriko hizkuntzak ere sarri sartu dira eztabaidaren barruan. Mendebaldeko Europako hizkuntza ez-indoeuropar bakarra izanik, euskarak jende ugari liluratu du: hizkuntzalari serioen belaunaldiak, amateurrak, eta apetan hartu duten beste edozein hizkuntzarekin erkaketak –onenean emaitzarik gabekoak eta okerrenean fantasioso, ezgauza eta erabat zentzugabeak diren erkaketak– egiten beren karreraren zati handi bat eman duten eszentriko amorratuak.

Lan-*corpus* eskerga honen ezaugarri nabarientariko bat ia gehienen kalitate eskasa da. Eta beste arlo batzuetan nabarmendu diren hizkuntzalari profesionalak ere maiz trakeskeria ezjakinera beheratu dira beren arreta euskarari ipini dutenean, eskuarki euskarari buruz ezer ikasten arduratu ez direlako.

Hasteko, ia lan hori guztia zoritxarrez “Bongo-Bongo” dei genezakeen proposizioarekin adieraz daiteke: «Begira, hemen ditut euskal hitz batzuk Bongo-Bongo

1. *Egilearen oharra*: Ondoko hauekin guztiekin zorretan nago lan garrantzitsuen berri eman edo / eta haiek lortzen lagundu didatelako: John Bengtson, Richard Coates, Arantza Díez de Tuesta, José Ignacio Hualde, Joseba Lakarra, Alexis Manaster-Ramer, Marc Picard, Paul Sidwell, Theo Vennemann. Hauetariko inor ez dator derrigorrez bat artikulua honetan adierazten diren iritziekin.

2. *Euskaratzailearen oharra*:

1) Jatorrizko artikulua: “Origin and Relatives of the Basque Language: Review of the evidence”, in J.I. Hualde, J. A. Lakarra eta R. L. Trask (arg.), *Towards a History of the Basque Language*, Current Issues in Linguistic Theory 131, 65-99, John Benjamins Publishing Company, Amsterdam & Philadelphia 1995.

2) Gauza gutxi batzuk aldatu egin ditut nire euskal bertsioan, jatorrizkoan gaizki daudelakoan. Esaterako, «see section 4 below» (69 or.). Honelako aipamen gehienetan zenbakia ez dago zuzen eta nik dagokiona ipini dut.

3) Euskal hitzen adibideak ematen direnean, hitza arrunta eta ezaguna bada ez dut esanahia jartzen, jatorrizko testuan hala egiten bada ere. Euskal hitza hain ezaguna ez denean (*tusuri*, esaterako), orduan adiera ematen dut euskaraz.

hizkuntzako beste zenbait hitzen aski antzekoak direnak». Esan nahi baita, ekimen hauek, ia salbuespenik gabe, ikertzaileari atentzioa eman dion edozein hizkuntzaren eta euskararen artean aliritzira egindako zenbait antzekotasunen bildumak besterik ez dira, antzekotasun horiek zerbait oso esanguratsua adierazten dutela gaineratuz. Baina lan mota honek ez du zentzurik. Pazientzia nahiko izanik eta hiztegi handi batekin beti aurki daitezke halabeharrezko antzekotasunak edozein bi hizkuntzaren artean. Honetaz zalantza egiten duen irakurlea gonbidatua dago ariketa hau egitera: aukera itzazu ongi ezagutzen duzun hizkuntza bat eta arbitrario eta imajinaezina den beste edozein, tamaina handiko hiztegi elebiduna duzularik, eta eman itzazu ordu gutxi batzuk bilaketan.

Beste puntu bat: urrutiko ahaidetasunen atzetik saiatu diren autore gehienek euskarari buruzko desinformazio izugarria izan dute. Jakina, badira salbuespen gutxi batzuk: geroago agertuko zaizkigun Hugo Schuchardt alemana eta René Lafon hizkuntzalari frantziarra euskal linguistikari ekarpen garrantzitsuak eginiko euskalari bikainak izan ziren; C. C. Uhlenbeck nederlandar jakintsuak ere zenbait ekarpen egin zituen bere aldetik; eta Antonio Tovar espainiarra euskarari buruzko jakitun handia izan zen, egilekide izan den hizkuntzaren hiztegi etimologikoak oso nabarmen erakutsi duen bezala (Agud & Tovar 1988). Ia beste guztiek, alabaina, ematen du hiztegi elebidunetatik ateratako datuekin eta beste bigarren mailako iturri batzuekin soilik egin dutela lan. Ondorioz, euskarazko elementuen artean etengabe latinetik eta erromantzeetatik hartutako maileguak, euskararen barruko egitura garbiak, tokian tokiko formak eta antzinatasun gutxiko aldaerak, eta baita neologismo modernoak ere aipatzen dituzte, eta hauek beste hizkuntza batzuekin konparatzen dituzte. XIX. mendeko Sabino Arana hizkuntz planifikatzailearen asmakuntza xeble zenbait ere aurkitu eta seriooki konparatu dira berbera edo abkhazierarekin. Hitzak gaizki aipatuak dira, gaizki iruzkinduak, edo gaizki analizatuak; forma edo adiera modernoak aipatzen dira, gure lehen euskal testuek arras ezberdinak erakusten dituzten bitartean; soilik eskualdeko forma partikularrak erabiltzen dira beste barietate batzuen lekukotasunak koadro oso desberdina margotzen duenean; aurreko ikertzaileek egin hankasartze garbiak kopiatu eta zabaltzen dira; datuen iturriak ia inoiz ez dira identifikatzen; are eukal linguistikari buruzko oinarritzko esanak ere ez dira ez aipatzen ez dirudienez irakurtzen.

Lan-*corpus* honen hutsune kolektibo bereziki larria bere euskararen historiaurre fonologikoari buruzko ezjakintasun erabatekoa da. 1960 inguru baino lehenago, ezjakintasun hau gutxienez ulergarri zen, hizkuntzaren historiaurre fonologikoa oraindik argitu gabe baitzegoen. 1950eko hamarkadan, dena den, Luis Michelena euskal hizkuntzalari handiak zehaztasun harrigarriarekin erdietsi zuen historiaurre hori argitzea: gutxi gorabehera duela 2.000 urteko aitzineuskararen sistema fonologikoa berreraiki zuen, eta harrezkero gertatu aldaketa fonologikoak identifikatu zituen. Kontsonanteen historiaurrearen laburpena eskaintzen zaigu Michelena 1957an –artikulu horren ingelesezko itzulpena liburu honetan agertzen da–, eta berreraiketa osoa dokumentazioz betea aurkezten da Michelena *Fonética histórica vasca* liburuan, lehenik 1961ean argitaratua, eta gerora 1977 eta 1985ean argitalpen handituak izan dituen (laburpen zehaztua Trask 1997). Xehetasun gutxi batzuk oraindik eztabaidatuak diren arren, berreraiketa hau hain da zorrotz eta oparoki dokumentatua, eta hain da ongi egina garai

guztietako datuen *corpus* osoaren berri ematean, ezen euskalarietarik inork ez baitu serioski zalantzan jartzen. Guztiarekin ere, euskarari ahaideak aurkitzeko egin diren saio berrienetan etengabe ahaztu da orain ongi ulertua den hizkuntzaren historiaurre fonologikoa. Ohikeriaz duela 2.000 urte agian hizkuntzan izango ez ziren hitzak ekartzen dira froga gisa, edo, baldin baziren ere, beharbada ez dituzte izan ikertzaileak behar zituen forma fonologikoak. Izan ere, badirudi ikertzaile berri askok Michelenaren lana ez dutela batere ezagutzen.

Bestalde, ia lan hauen guztien ezaugarria da ikertzaileek ez dutela duda egiten euskal hitzak arbitrarioki zatitzean, pareka ditzaketen hitz zatiak ateratzearen aurrizki eta atzizki misterioitsu eta ezezagunak *ad libitum* kenduz eta baztertuz. Bereziki, oso sarriak baina dirudienez desegokiak diren euskararen hitz hasierako bokalak etengabe kentzen dira, nahiz eta ikertzaile gehienek ez duten zalantzarik izaten parekatzeko zail gertatzen den edozein euskal hitz-zati baztertzeko. Ikertzaileek hau egiten dute atzizkiak euskarari ia dokumentatu gabeak direnean ere, eta baita morfema baztertuak ez ezagutzen ez errepikatzen ez direnean ere. Jakina, taktika honekin errazago aurkitzen dira “sustraiakideak”, baina nekez onar daiteke linguistika historiko seriotzat.

Azkenik, pare bat salbuespen gorabehera, ikertzaile hauek ez dute euskara eta beste hizkuntzen arteko korrespondentzia sistematikoak identifikatzeko ahalegin txikienik ere egiten. Hauxe da araua: edozein euskal segmentu beste hizkuntza bateko edozein ozta-ozta antzeko segmenturekin parekatzen da, ikertzailearen nahierara, hutsaren peskizan. Ozta-ozta antzeko segmentuak okerreko ordenean badaude, orduan “metatesiaz” baliatzen da, eta, zer esanik ez, pareka-tzeari setaz uko egiten dioten segmentuak ahaztu egiten dira, adierazi bezalaxe.

Jarraian, era askotako ahalegin hauek aztertuko ditut lekuak uzten didan zehaztasunarekin. Ezinezkoa da proposamen bakar bakoitza eztabaidatzea, are aipatzea ere, oso ugari baitira. Hortaz, honako kasu hauek jarriko ditut eztabaidan: (1) denbora luzean iraun duten guztiak; (2) aldeko iruzkina jaso duten guztiak; (3) erantzuna merezi izateko aski serioak diruditen guztiak; eta (4) gainerakoen lagin adierazgarria.

1. “Europera zaharra”

Europar jendea bizi izan da hizkuntza indoeuroparrak iritsi baino hamar milaka urte lehenago, eta, zalantzarik gabe, hizkuntza hauek kontinentean zehar mintzatzen ziren aurreko hizkuntza mordoa ezabatu zituzten. Han-hemenkako salbuespen gutxi batzuekin, ez dugu aurreko hizkuntza hauen lekukotasun zuzenik, baina beharbada zeharkako lekukotasun zenbait izan dezakegu. Hizkuntzalariek denbora luzean susmatu dute hizkuntza indoeuropar konkretuen hiztegiak, ezaugarri gramatikalek eta baita garapen fonologikoek ere, indoeuropar hizkerak ezabatu zuen biztanleria indigenaren hitzunen eragina isla dezaketela. Berbarako, zeltiar hizkuntzen hasieran aditza duen perpaus-egitura, hogeiko zenbaki sistema eta mutazio kontsonantiko bereizgarria, biztanleria indigena

ezezagun baten eragina izan dela uste izan da batzuetan. “Substratu”-teoria horiek onarpen iraunkorra frogatu dute, nahiz eta indoeuropar aurreko hizkuntzen izaerari buruzko gure ia erabateko informazio-ezak substratu-teoriak gehienetan ezinbestean mugatzen dituen espekulazio hutsak baino zertxobait hobea egitera.

Indoeuropar hizkuntzen ez-IE ezaugarri diruditenak azaltzeko substratu-teoria onartu duten gehienek substratu-hizkuntza bakarra proposatzera jo dute, edo gehienez historiaurrean kontinenteko eremu handi batean zabaldua zegokeen estuki loturiko hizkuntz talde bakarra. Oturiko eskala partikularren arabera, substratu hipotetiko hauek literaturan era desberdinean izan dira izendatuak, hala nola “mediterraneoarra” edo “europar zaharra”. Hain zuzen ere, indoeuropeeraz mintzo den lurralde zabal batean oso maiz egotzi zaizkio halako iturri bati itxuraz ez-IE diren elementu lexikalak, sarritan bereziki toponimoak. Eta hizkuntzalari askok, nola ez, izugarritzko irrika izan dute mendebaldeko Europan bizirik dirauen aurre-IE hizkuntza bakarrean, hots, euskarari aurkitzeko beraiek proposaturiko substratu-hizkuntzaren lekukotasun zuzena.

Egiantan, ez dirudi *a priori* arrazoi gehiegirik dagoenik uste izateko euskara izan daitekeela garai batean Europan zehar hedatua zen gutxi gorabeherako hizkuntz batasun monolitikoa zenaren adibide adierazgarria. Indoeuropar inbaditzaileek Europa linguistikoki homogenea aurkituko zutelakoak arrunt sinesgaitza dirudi. Askoz seguruago, indoeuroparrek hizkuntz mosaiko bat aurkituko zuten, handia edo txikia, batzuk ahaidetuak, beste batzuk ez, aurretiko milurteko askoren kolonizazio, joan-etorri eta hizkuntz aldaketen ondorio, beste edonon bezala. Pentsa dezagun, esaterako, iberiar Penintsulako erromatar aurreko hizkuntz egoeran. Erromatarrek iritsi zirenean, iparraldean euskararen antzinako forma aurkitu zuten, ekialdean eta hegoaldean dirudienek ahaidetua ez zen iberiera (ikus beherago 3. atala), zenbait indoeuropar hizkuntza (gutxienez greziera eta zeltera, eta seguruenik beste batzuk), hizkuntza punikoa, Portugal hegoaldean tartesiera misteriozua –zein antza denez ez zegoen beste ezeinekin ahaidetua– (ikus Anderson 1988: 5. kap.), eta ziurrenik arrastorik utzi ez duten beste hizkuntza batzuk (Penintsulako iparmendebaldean ez dago lekukotasunik). Espainia ez da inola ere ezohikoa. Antzinako informazioa duguneko edozein lurraldek linguistikoki koadro konplexua erakusten du: Britainia Handia, Italia, Balkanak, Anatolia. Sekulako fedea behar da indoeuroparrak etorri aurretik Europan honelako desberdintasuna ezezaguna zela sinesteko. Ondorioz, Alpeetan landare-izen, Sardinian tresna-izen edo Danubion leku-izen bezala agertzen diren elementu misteriozua hauek euskararekin identifikatzeko edozein ahalegin esperantzarekin gehiago egin behar da konfiantzarekin baino.

Halarik ere, halako ahaleginak ez dira izan urriak. Berziki, zenbait erromantistak, gehienak italiarrak, azken hirurogeita hamar urteetan edo, dozenaka proposamen aurkeztu dituzte hizkuntza erromantzearen zenbait hitz edo izen euskararen zenbaitekin identifikatuz. Jakitun horien dekanoa, dena den, zalantzarik gabe Johannes Hubschmid hizkuntzalari alemana da, zeina, hiru liburutan (Hubschmid 1960, 1963, 1965) bukatu ziren argitalpen-sail luzeetan, gaiaren historia osoaren analisi kritikoa egiten saiatu zen, bere kontura eginiko proposamen gehiago gaineratuz. 1965eko liburuan, erromantzean proposaturiko euskal hitzen zerrenda

egin zuen, gehienak gezur-itxurakotzat arbuaiatuz, eta itxuraz indoeuropar ziren hitzen zerrenda xume batekin bukatu zuen. Hitz horiek, bere ustez, euskal hitzekin identifika daitezke seguruenik eta, beraz, antzinako substratu bati egotzi. Zorigaitzez, Hubschmiden azken zerrendak, xumea izanik ere, zailtasun handiak erakusten ditu. Zehazki, hitz hauetarik askok duela 2.000 urteko aitzineuskarak ezin izan zitzakeen forma fonologikoak dituzte: *tutur* eta *kutur*, biak ‘gandor’, *kosko* ‘ezkur-oskola’, *pentoka* ‘muino txikia’, *muga*, eta abar. Hitz hasierako *p-*, *t-* eta *k-* eta hitz barruko *-nt-* horiek garbi aski frogatzen dute hitz hauek euskaran erromatarren ondoren sartu zirela; aldiz, hitz hasierako *m-* batek mailegua zein jatorrizko **b* adieraz ditzake (ikus Michelena 1961, Trask 1997). Jakina, pentsa daiteke ere hauek euskaran modu batean edo bestean beren bidea aurkitu duten aurre-IE hitzak direla, baina nekez izan zitezkeen hor duela milaka urte, eta horregatik euskarak ezin du gaiari dagokion lekukotasun independentea eman. Kontuan izan Michelenak azpimarratu zuela, Hubschmiden liburuaren (1967: 322) aipamenean, euskaran aurkituriko aurre-IE hitzak hizkuntza horretan ez zirela derrigorrez antzinakoak.

Bestalde, euskal *adar* hitzak antzekotasun estua erakusten du irlandera zaharreko *adarc* ‘adar’-ekin, eta ez du IE etimologia. Gainera, euskarazko *gorosti* zail da sardinieraren *golóstru* ~ *golóst(r)i* ~ *colostri* ‘gorosti’ hitzetik banantzea, nahiz eta euskal hitzak *-di* atzizki arrunta izan dezakeela dirudien. Bi hauek apika euskaran eta indoeuperaren *adar* batzuetan bizirik iraun duten substratu-hi-tzen benetako adibideak izan daitezke.

Berrikiago, Theo Vennemann hizkuntzalari alemanak, ibai-izenetan oinarrituz, euskara europa zaharrarekin identifikatzea proposatu du (Vennemann 1994a). Hans Kraheren lehenagoko lan bat zabalduz eta aldatuz, Vennemann hasten da seinalatzen Europako Alpeetako iparraldean diren ibai-izen askok erakusten dutela, dokumentaturiko edo berreraiki daitezkeen forma zaharrenetan, halako famili antzekotasun handia non hizkuntza bakarretik etorri behar duten. Hona hemen Kraheren datuen lagin bat, forma nabarmenenak erakusteko moldatua:

<i>Ava</i>	<i>Aura</i>	<i>Aula</i>	<i>Auma</i>	<i>Avantia</i>
<i>Ara</i>	—	<i>Arla</i>	<i>Arma</i>	<i>Arantia</i>
<i>Ala</i>	<i>Alara</i>	—	<i>Alma</i>	<i>Alantia</i>
<i>Sala</i>	<i>Salara</i>	—	<i>Salma</i>	<i>Salantia</i>

Hots, ibai-izenak erro-multzo xume batekin eratuak dira, eta erro bakoitzak atzizki-multzo identifikagarri bat edo atzizki horien segidak har ditzake. Vennemannek hasierako erro batez, aukerako “determinatzaile” batez (kontsonante soila), eratorpen-atzizki bat edo gehiagoz, eta bukaerako *-a* batez osatuak diren izen horiek analizatzen ditu; eta ondorioztatzen du ibai-izenok eman dituen hizkuntza oso eranskaria eta ia soilik atzizki-sistemaduna izan behar zuela, eta horregatik ezin zuela, Krahek beti defendatu bezala, hizkuntza indoeuroparra izan.

Vennemannek hizkuntza honen fonotaktika ere aztertzen du eta horretarako gutxienezko fonema-sistema eraikitzen (“gutxienezkoa”, jakina, zeren eta ibai-izenok ehundaka milurtekotan hizkuntza indoeuroparren iragazkitik pasatu ondoren

iritzi baitira gugana, eta, beraz, hizkuntza hauetan ez aurkitutako edozein segmentu osagarri besterik gabe galdua izan daiteke). Bere “euopera zaharrerako” eraikitzen duen sistema honelakoxea da:

i	e	a	o	u	(ai)	(au)	(eu)
p	t	k					
b	d	g					
	s		χ				
m	n						
	l						
	r						

Hau, noski, ez da sistema oso bereizgarria: atzeko frikariak aparte, munduko hizkuntza gehienetan aurkitzen diren segmentu ez-markatuez baino ez da osatua. Guztiarekin ere, Vennemannek, baikortasun puntu batez, sistema hau aitzineuskararako (berak *euskara zaharra* deitzen duena) eraiki sistemarekin konparatzen du. Tamalez, Michelenaren berreraiketaren Vennemannen aurkezpena ez da batere zuzena: ahaztu egiten ditu Michelenak erabakigarritasunez proposaturiko *N eta *L sudurkari eta albokari fortisak; ez du aipatzen Michelenak proposatu fortis/lenis kontrastea eta badirudi Michelenak espreski ezeztatutako ahostuntze-kontrastea aurkezten duela; eta ez ditu kontuan hartzen Michelenak proposatu zituen neutralizazio mordoa. Bestalde, Vennemannen “euopera zaharrak” /m/ bat behar du nahitaez, Michelenak aitzineuskaran /m/-ren arrastorik aurkitu ez bazuen ere (artikulu aurrerago, Vennemannek horietako datu batzuez ohartarazten du laburki; bere zerrenda nahiko nahasia bada ere, ematen du bere analisisetan inoiz ez dituela kontuan hartzen).

Vennemannek ibai-izen hauen bi ezaugarri seinalatzen ditu: hasierako *a-* -ren maiztasun handia eta bukaerako *-a* -ren presentzia ia erabatekoa. Ezaugarriok, jakina, euskararen ere aurkitzen dira. Hasierako *a-* -k maiztasun harrigarria du euskararen; gainera, *-a* euskal artikulua ia beti eransten zaie isolatuta aipatzen diren izenei. Hori dela eta, Vennemannek ibai-izenen hizkuntza, euopera zaharra, euskararen antzinako formatzat proposatzen du.

Baina zailtasun larriak daude interpretazio honetan. Lehenik, *-a* euskal artikulua iturri argia du erabat euskararen barruan, 3. graduko erakuslearen (*h)a(r)*- enborraren espezializazio gisa; artikulua hau ez da dokumentatzen euskararen antzinako hizkuntza den akitanieran, eta oraindik gaur egun ekialdeko euskalkietan izenak ez dira mugatzen besteetan egiten den moduan. Eta, horregatik, artikulua sorkuntza, ziurtasun osoz, erromatar ondoko garaian gertatu zen: milaka urte beranduegi Vennemannen helburuetarako. Bigarrenik, Vennemannek euopera zaharrerako zerrendaturiko erro edo atzizkietarik batek ere ez du euskarazko ezeren antzik, salbu */s/- erroak, zein Vennemannek Azkuek (1905) proposatutako ustezko *iz- euskal erroarekin berdindu nahi duen. Edonola ere, Azkuek bere *iz- horren alde ekarritako hitz guztiek dute alternatiba bat eta azalpen hobea (ikus aurki argitaratzekoa den Trask a), eta Michelenak zenbait lekutan ustezko erro hau baztertzeko du fantasma bat bailitzen. Hirugarrenik,

Vennemannek parekatutako erro kopuru garrantzitsu batek aitzineuskararen ezinezkoak ziratekeen formak dituzte: *Drava-*, *Kara-*, *Pala-*, eta hasierako herskari onartezinak dituzten beste batzuk; *Vara-*, *Visa-*, eta hasieran *v-* duten beste asko (Vennemannek /u/-ren alofono ez silabikotzat joa); eta hasieran bi edo are hiru kontsonantedun taldeak dituzten erro mordoa. Jakina, eragozpen hauetako bat ere ez da ezinbestean desegokia Vennemannen proposamenerako, baina ez dira oso lagungarri, eta nik iradoki nahi nuke Vennemannek identifikatu duena onenean euskararekin antzekotasun oso txikia duen hizkuntza eranskari bat dela. Bestalde, “europera zaharreko” ibai-izenen indoeuropar izaera defendatu du Schmidek (1987). Honek adierazten du ibai-izen hauetan antza denez agertzen diren morfema asko erraz pareka daitezkeela oso ezagunak diren indoeuropar erro eta hizkiekin.

Vennemannek, beste bi argitalpenetan (1993, 1994b), erdialdeko europarren etxe-izenetarako euskal iturrien ideiarekin jarraitzen du. Arreta bereziki *Munich* (alemanez *München*) izenean jartzen du, eta berak harrigarriki euskarazko *muno* ~ *muna* ‘muino, aldapa, ibaiertz’ hitzetik erakarri dela uste du. Hau harrigarria da zeren eta toponimialariak ziur daude germaniar etimologia argia duela (‘monje’ adierazteko hitzetik) eta Munich-ek inolako muinorik ez duelako. Edozein kasutan, oso dudazkoa da *muno* hitzaren euskal jatorria bera: duela 2.000 urte euskararen izan balitz, **bunno* (Michelenaren **buNo*) izango zatekeen. Baina hitz bera mendebaldeko erromantzean oso dokumentatua da, eta Corominas & Pascualek (1980) etorki ezezaguna duen jatorrizko **bunno* proposatzen dute iturburutzat. Hala ere, *muño* euskal aldaera orokorra, eta *muino* bere forma despalatalizatua, ezin dira euskara barruan erraz azaldu, eta iruditzen zait sudurkari bustia azaltzeko erromantzearen bitartekaritza baliatu behar dugula. Eta horrek narama (gutxienez) susmatzera *muno* ziurrenik erromantzetik hartutako mailegu bat dela, *m-* batez hasten diren euskal hitz gehienak bezala, eta ondorioz euskarak ezin duela argitu hitz erromanikoaren jatorria, eta askoz gutxiago *Munich* izenarena.

Europera zaharraren eta euskararen arteko auziari buruzko hurbilketa originalagoa egiten du Adams-ek (1980). Adamsek egiten duena da konparatu ustezko indoeuropar ibai-izenen lagin bat hiztegitik ateratako euskal izenen lagin batekin, luzeran eta egitura silabikoan parekorik badagoen ikustearren. Ideia interesgarria da, baina tamalez autoreak euskararen laginerako hiztegiko *K* hizkia aukeratzen du, eta, Michelenak erakutsi bezala, nolabaiteko antzintasuna duten jatorrizko euskal hitzak ez dira leherkari ahoskabeekin hasten, eta, hori dela eta, lagina nekez izan daiteke aitzineuskararen ordezkari. Eta, are okerrago dena, badirudi Euskal Herriko bertako ibai-izen gehienak etorki ez-euskalduna dutela (ikus aurki argitaratzeak den Trask a).

2. Indoeuropera

Oso gutxi dira dirudienez antzinatik datozen euskal hitzak behialako indoeuro-par hizkuntzetako (maizenik bereziki zeltikoak) hitzekin antzekotasun nahiko erakusten dutenak, eta ez dira aski indoeuroperatik mailegatuak izan daitezkeela pentsatzeko (Michelena 1964b: 5, Gorrochategui 1987a). Honako hauek dira usuenik aipatuak: *adar*, *andere*, *angi(o)* ‘bazkaleku’, *aran*, *argi*, *arto*,

birrin 'zahi', *bost*, (*b*)*urki*, *erbi*, *gari*, *gezi*, *gori*, *haitz*, *hartz*, *hoge*, *izoki(n)*, *iratze*, *laia*, *landa*, *maite*, *mando*, *mendi*, *saldu*, *-tegi*, *tusuri* 'deabru', *zilar*, *zitu* eta *zulo*. Baina ustezko mailegu hauetatik bat ere ez da ia zailtasunik gabekoa, eta arrazoi bategatik edo bestegatik horietako asko berehala bazter daitezke (ikus aurki argitaratzekoa den Trask a). Ondorio hauek kontraste izugarrian daude beste leku batzuetan aurkitzen dugunarekin: inork ez ditu zalantzan jartzen, esaterako, hizkuntza finougriarrek indoeuroperatik hartutako maileguen kasu argiak, edo germanikoak antzinako zelteratik hartutako maileguenak. Euskaran dagoen indoeuropea goiztiarraren maileguen gabezia harrigarria da, agian baita misteriozua ere.

Michelenak (1964b: 54-55) iradokitzen du euskaran erromantze eta latinetik beranduagoko maileguek erraz ordezkatzeko zitzaketela antzinako mailegu asko, eta beste batzuk aldatuak izan zitezkeela latinaren eraginez (adibidez, euskarak 'errege' esateko hitz zeltikoa mailegatu izan zezakeen **errigV* moduko forman, baina geroago *errege* bilakatuko zen latinezko *regem*-en eraginez). Hauek agian espekulazio onargarriak dira, baina espekulazioak inondik ere.

Bestalde, aipatzekoa da euskarak ez duela indoeuropearen antzinako eragin gramatikalen arrastorik erakusten. Indoeuropar gramatikaren aditz-aurrizkiak, erlatibozko izenordainak eta menderagailuak bezalako ezaugarri nabarmenak ez dira oro har euskaran aurkitzen, eta dauden kasu apurrak oso argi beranduko jatorria dute eta erromanikoaren eraginez eratorriak dira. Ohi bezala, testigantza-ezak ez du ezer frogatzen, baina antzina maila bateko ukipena izan bazen, nahiko harrigarria da inolako aztarna gramatikalik ez aurkitzea.

Alabaina, saialdi serio bat egin izan da indoeuropearen aldaera goiztiar zenbait (beharbada aitzinindoeuropea –PIE– berbera) eta euskararen forma zaharra biltzen dituen ezaugarri gramatikal partekatu bat frogatzeko. Saialdi hau Antonio Tovar goi-mailako indoeuroparazaleak egin du argitalpen-sail batzuetan (Tovar 1954, 1959a: 5. kap., 1970). Bere aldarrikapenaren funtsa da *-ko* euskal atzizki erlazioantzailearen funtzionamendua hain dela PIErako eraikitako **-ko* atzizki hitz-sortzailearen antzekoa, non biek behar baitute etorki bakar beretik eratorriak izan. Beraz, Tovarrek PIEren eta euskara zaharraren forma zenbait antzinako europar hizkuntz eremu bateko partaide zirela ondorioztatzen du. Hizkuntz eremu hori aski kohesiboa zen osatzen zuten hizkuntzetan edozein jatorri zuten hizkuntz elementuen eta are morfema uztartuen zabalitzea onartzeko. *-ko* morfema horietako elementutzat hartu zuen.

Euskal *-ko* atzizkiak hiru funtzio nagusi ditu: maiztasun handiko gailu emankorra da edozein motatako adberbioak adjektibozko esaldi konplexu bihurtzeko; ez da oso gailu emankorra N-barrak adjektibo konplexu bilakatzeko; eta atzizki antzu samarra da izenak eratoritzeko beste izen batzuetatik. Lehen erabilera *mendietako bideak* edo *esku-huskako pilota partida* bezalako eraketek ilustratzen dute. Bigarren erabilera *bihotz oneko neska* eta *hiru urteko umea* moduko konstruktuek erakusten dute. Hirugarren erabilera *gerriko* eta *ipurdiko* bezalako eratorriek adierazten dute.

**-ko* indoeuroparra hititeran izan ezik IEren beste adar guztietan dokumentatzen da. Nagusiki izenetatik adjektiboak eratorritzen dituen atzizki hitz-sortzailea da:

latina *civicus* 'hiritar' (*civis* 'hiria'), greziera *physikós* 'natural' (*physis* 'natura'), sanskrito *sín dhukas* 'Indusetik datorrena' (*Sín dhus* 'Indus'), eta beste asko. Germanikoak *-s-ko forma hedatua hobesten du, esaterako gotikoa *mannisks* 'gizaki' (*manna* 'gizon') eta -ish bukaera duten ingelesezko hitz-sorta osoa.

Zenbaitetan euskal eta IE atzizkiak txikigarriak sortzeko erabiltzen dira: euskara *idiko* (*idi*) eta latina *musculus* 'gihar', baina literalki 'sagutxo' (*mus* 'sagu').

Zer egin dezakegu Tovarren proposamenarekin? Zailtasun larriak daude. Balirudike proposamen honek euskara zaharra ukipenean egon izana eskatzen duela ez bakarrik mendebaldeko IE hizkuntzekin, baizik baita PIErekin berarekin ere, edo oso hurbileko zerbaitekin. Baina hauxe da arazoa: orain arte indoeuropar herriaren kokapenaz adostasunik ez badago ere, mundu guztia bat dator Euskal Herritik oso urrun izango zelako ustearekin. Espezialista gehienek Errusia edo Ukraina hobesten dute, gutxi batzuek Balkanak, Anatolia edo are Ekialde Ertainaren alde egiten badute ere. Soilik gaur egun ia inork defendatzen ez duen proposamen batek kokatzen du Europako iparraldean. Hortaz, PIE eta aitzineuskararen artean morfema uztartu baten beharrezko transmisioak duela milaka urte Europar kontinente osoan ukipen oso handia eskatuko zukeen. Ez dugu ukipen horren testigantzarik, baina egia esan indoeuropar hizkuntzen European zeharreko hedatze argiaz landa, ez dugu aldi urrun hartaz inolako daturik. Nire uste onena da, hortaz, Tovarren proposamena onenean aieru onartezin gisa geratzen dela, gutxienez norbaitek PIE eta aitzineuskara bil zitzakeen antzinako *Sprachbund* baterako datu oparoagoak aurkitzen dituen arte.

Frank (1980), hain zuzen, datu horiek ematen saiatzen da. Bereak indoeuroperaren forma zahar zenbaitek eta euskarak partekatzen dituzten morfema gehiago badirela frogatzeko saio bat izan nahi du. Zoritxarrez, autoreak hasiera-hasieratik argi aitortzen du berak ez diela inolako kasurik egin nahi linguistika historikoaren lan ortodoxo estandarrei, gure "arau sakratuak", berak deitzen dituen bezala. Horren ordez, bere ikerketak berak asmatu arauekin jolasteko joko dibertigarri gisa kontsideratzea proposatzen du autoreak. Bere hitza bezain ona da bera.

Liburuak hiru hitzez soilik dihardu: euskal *haitz*, *jo* eta *su*. Hitz bakoitzean indoeuroperaren nolabaiteko presentzia frogatzen saiatzen da. Ahalegin hauek, esan beharra dago, ez dute batere asebetetzen: autoreak iruzkinik gabe bazterten ditu bai euskal eta bai IE elementuentzako mundu guztiak onartzen dituen etimologiak eta bere interpretazio fantastikoekin ordezkatzen ditu; are dravidiar erro bat ekartzen du eztaibadara, zerbait indoeuroparra balitz bezala tratatuz.

Indoeuroperak eta euskarak zenbait elementu partekatu dituztela frogatzea nahi du orobat Castro Guisasolaren lehenagokoa baina handinahiagoa den liburuak (1944); bitxikeria honi buruzko Michelenaren iruzkin erregistratu bakarra «ahaztea hobe» da, eta ezinezkoa da iritzi horren kontra egitea.

Noski, erromatar kolonizazioaren garaitik euskarak ukipen estua izan du latinarekin eta bere ondorengo erromantzeekin, eta auzoko hizkuntza hauen eragina handia izan da, bereziki euskal hiztegian. Latineko eta erromantzeetako

milaka mailegu sartu dira euskaran, eta, ondorioz, hizkuntzaren fonologia nabarmen aldatu da. Hitz asko garai oso zaharrean mailegatu ziren latinetik, erromatar ebakeraren ezaugarriak gordetzen baitituzte: *liburu* (< *librum*), *bake* (< *pacem*), *errege* (< *regem*), *gela* (< *cellam*), *bike* (< *picem*), *lukuru* (< *lucrum*), *gauza* (< *causam*), eta beste asko (Michelena 1974, liburu honetan ingelesezko itzulpenean berrinprimatua, latinetiko maileguek euskaran izan zuten egokitzapena ezagutzeko laburpen egokia da). Baina euskaran hitz erromanikoen etorria inoiz ez da gelditu, eta merezi du seinalatzea horietako mailegu asko ahaidetasun genetikorako datuen bila aritu diren konparatibistek maiz ongi ezagutzen ez dituzten inguruko erromantze arruntetatik datozela: Espainiako nafar erromantzea eta aragoiera, eta okzitaniara (bereziki gaskoina). Horren ondorioz, konparatibista hauek sarritan nahi gabe aipatu dituzte mailegu erromaniko garbiak direnak berbera, kaukasoera edo burushaski hizkuntzaren hitzen euskal “ahaide” gisa: *mulo* ‘(belar-/garo-) meta’, *kuma* ‘zurda’, *bahe*, *zango*, *pintza* ‘mintz’, *golko*, *kokot(s)*, *agure*, *eme*, *matel*, *kasko*, *musin* ‘mutur’, *paru* ‘makila’, *toska* ing. ‘kaolin’, *(l)akain*, *arroda*, *busti*, *moko*, *azeri*, *xahu* eta, beste askoren artean, baita latinetiko mailegu argiak diren *gela* eta *kaiku* modukoak ere.

Erromatar boterearen porrotaren ondoren, euskaldunak ehundaka urtetan ukipe-nean izan ziren germaniar herrieekin: frankoak eta bisigodoak. Beraz, euskaran mailegu germanikoak aurkitzea espero dezakegu, baina ez ditugu aurkitzen. Gorago aipaturiko *saldu*, *zilar* eta *(b)urki* zalantzazko kasuez gain, kandidatu interesgarri bakarra dago: *ehun* zenbakia. Jakina da gotikoan ‘100’ *ain hund* zela, eta ezaguna da ere [en hund] ebakera zuela. Eta honek, mailegatua izatekotan, hain zuzen ere zehazki *ehun* emango zukeen. Guztiarekin ere, honelako mailegu isolatu batekiko motibazioa ez da oso argia, eta euskalari asko hitz honen germaniar etorkiari buruz ezkor agertzen dira. Iradoki diren beste mailegu germaniko batzuek, hala nola *edo*, *gudu* eta *garbi*, onartezinegiak dirudite seriooki kontuan hartuak izateko.

Laburtuz, kontuan izanda antzinako Europako hizkuntz egoeraz ezagutzen duguna, IE-euskararen arteko ukipenaren edozelako ebidentzia espero bide genezakeen baino urriagoa da.

3. Iberiera

Antzinako iberiar hizkuntza Espainiako hegoaldean eta ekialdean aurkitutako zenbait inskripziotan jasoia izan da. Inskripzio horiek harrian, taula metalikoetan eta diruetan agertzen dira, eta K.a. VI. mendetik lehen mendeetara bitartekoak dira. Gutxi batzuk greziar alfabetoan inskribatuak dira, baina gehienak luzaro deszifratu gabe iraun duen idazkera indigena batean izan dira idatziak.

Nahiz eta iberiar testuak euskaldun izan den ere ez dakigun eremu batera mugatuak izan, adituek mendeetan susmatu dute euskararekin ahaidetua den hizkuntza bat gorde zezaketela, eta seguruenik are euskaldunen antzinako hizkuntza. Honelako zerbait iradoki zuen Pozak (1587), baina Larramendi (1728) izan zen iberiera euskararen antzinako forma zela esplizituki iradoki zuen lehena. Iradokizun hori ondorengo euskal apologista gehienek onartu zuten, Pablo Pedro Astarloak

bereziki, eta honek Wilhem von Humboldti pasatu zion. Humboldtek, bere aldetik, ideia hori ezagutarazi zuen bere 1821eko liburuan.

Ondo hartua izan arren, iberiar idazkerak deszifratu gabe iraun zuen bitartean proposamen hori ezin izan zen seriozki ikertu. Ezinbesteko deszifratzean astiro eta ziurtasun-ezaz aurreratu zen, baina mende bat geroago Humboldten ondoren, euskara-iberiera erlazioaren aldeko Hugo Schuchardtek bere 1908ko *Die iberische Deklination* liburuan iberieraren izen-deklinabidearen berreraiketa iragarri zuen, eta iberieraren kasu-bukaerak euskararenekin identifikatzen saiatu zen (edo, zehatzago esanda, euskararen bere berreraiketekin). Hona hemen Schuchardten konparazioaren laburpen bat:

Kasua	iberiera		euskara	
	sing.	pl.	sing.	pl.
Inertea	—	<i>c</i>	—	<i>k</i>
Agentea	<i>c</i>	?	<i>k</i>	<i>kek</i>
Hartzailea	<i>i ~ e</i>	<i>ce(a)i</i>	<i>i</i>	<i>ki</i>
Instrumentala	<i>š ~ s</i>	<i>ci</i>	<i>z</i>	<i>kez</i>
Posesiboa	<i>n ~ m</i>	<i>cen</i>	<i>n</i>	<i>ken</i>
Adjektibozkoa	<i>co</i>	—	<i>ko</i>	—

Hasiera batean zirragarria eman dezakeen arren, baztertua izan daiteke. Alde batetik, iberiar idazkera deszifratzeko egin aurrerapenak berehala erakutsi zuen Schuchardten irakurketek akats larriak zituztela. Bestetik, Schuchardtek erabilitako “iberiar” testu asko hizkuntza erabat desberdin batenak zirela jakin zen geroago, alegia, zeltiberiera gisa ezagutua den hizkuntza indoeuroparrarenak. Azkenik, Schuchardtek euskararako berreraiki zituen hamar formatatik bost defendaezinak dira.

Mendearen erdi inguruan, azkenean ere, Manuel Gómez-Moreno espainiar hizkuntzalariak gaur egun oro har onartua den iberiar idazkera deszifratzea lortu zuen; behin betiko bertsioa Gómez-Moreno (1949)-an argitaratu zen. Idazkera silabiko-alfabetikoa da, *C* leherkaria den *CV* sekuentzietarako erabiltzen diren karaktere silabiko bakarrekin, eta beste kontsonante guztietarako eta bokaletarako erabiltzen diren karaktere alfabetikoekin. Zeinu bat, *Y*, interpretatu gabe dago oraindik; era desberdinean pentsatu izan da zeinu horrek sudurkariren bat edo bokal biribilduren bat irudika zezakeela. Nahiz ez guztietan, baina bai inskripzio askotan (idazkera indigenan zein greziarrean), testua marken bidez ustez hitzak izan daitezkeen zatietan berezia dago (baina honetaz ezer ziurrik ez dago, eta sekuentzia batzuek hitz soilak izateko luzeegiak dirudite).

Deszifratzearen ondoren, Antonio Tovar eta Luis Michelena berehala arduratu ziren jada maila fonologikoan irakur zitezkeen iberiar testuez. Lehen begiratuan, proposamenak etorkizun handikoa zirudien alderdi batzuetatik. Lehenik, iberieraren sistema fonologikoak euskararen eta bereziki aitzineuskararako berre-raikiaren oso antzekoa zirudien: bost bokal; leherkari ahostunen nagusitasuna (berreziki *b* eta *g*); *m*-ren urritasuna; *p* kontsonantearen ia erabateko gabezia; kontsonante-talde gutxi eta sinpleak (eta horien barruan hasierako kontsonante-talde oso gutxi eta leherkariz hasten diren kasik talderik ez). Bestalde, baziren euskarazko

hitzekin eta hizkiekin antzekotasun handia erakusten zuten morfo errepikariak (*morfoak* diot zeren ez baita biderik morfema-mugak identifikatzeko). Esate baterako, *-ko* eta *-tar* morfo komunek euskal *-ko* atzizki erlazionatzailean eta *-tar* atzizki etnonimikoan pentsarazten dute, eta gainera iberiar *-tar* hori zenbaitetan susmagarriki leku-izenak diruditenei erantsia dago. Hala eta guztiz ere, Tovar, argitalpen-sorta batean (1949, 1951, 1959a, 1959b, 1961), honako hauek frogatzeko gai izan zen: antzekotasun hauek guztiz azalekoak zirela, iberierak ez zuela euskararekin antz handirik eta, garrantzitsua-go dena, iberiar testuak irakurtzeko euskara ez zela inola ere lagungarri. Ondorio berberetara iritsi zen Michelena bere aldetik (1955, 1958, 1973, 1976, 1979), nahiz eta Michelenak gutxienez onartu zuen antzekotasun fonologikoek eta partekatu morfo posibleek euskara eta iberiera barne ziren antzinako iberiar *Sprachbund* bat adieraz zezaketela. Baina bi adituen ondorio nagusia nahiko argia zen: ez zegoen datu erabakigarririk iberiera eta euskara ahaidetzeko, eta iberiar testuek ulertezin jarraitu zuten.

Anderson (1988) auzira itzultzen da, baina, zenbait euskal-iberiar konparazio nabarmenki baikor gorabehera, argi uste du ezin dela hizkuntzon arteko garrantzi handiko paralelorik seinalatu, eta ez ditu eztabaidan jartzen Tovarren eta Michelenaren ondorio erabat negatiboak.

Ondorio negatibo hauek hogeitaz urte baino gehiagotan eztabaidatu gabe iraun dute, duela oso gutxi arte. Juan L. Román del Cerro espainiar hizkuntzalariak berriki iragarri du iberiar testuak euskararen bitartez osoki irakurtzea erdietsi duela eta, gainera, iberiera euskaratik ia bereiztezina dela aurkitu duela (Román del Cerro 1993). Aurreko espezialisten ondorio negatibo sakonak kontuan izanik, Román del Cerroren baieztapenak erabat ustegabekoak dira, are harrigarriak. Halaz guztiz, inguru batzuetan oso aldeko iritzia jaso dute, eta badirudi hizkuntzalari batzuek autorearen frogetan sinesten dutela. Beste euskalari guztiak bezala, ez nator bat iritzi gogotsu honekin. Azter dezagun labor-labor Román del Cerroren lana.

Autoreak iberiar testuak puskatan banatzen ditu, eta gero zati bakoitzari dagokion euskal identifikazioa aurkitzen saiatzen da. Berbarako, STARIENMÜ (ü bere Y-ren irakurketa da) segmentu hauetan banatzen du: ST/ARI/EN/MÜ. Bere ST euskal *-zto* (adjektiboak eraten dituen atzizki urria: *zorritzto*) atzizkiarekin berdintzen du, ARI *hari*-rekin, EN *-en* genitibo edutezko atzizkiarekin, eta MÜ *muin*-ekin (ia ziur **bune*-tik dator eta beharbada latinetikoko mailegua da). Honela *-zto hari -en muin* ateratzen zaio, mordoilokeria ez-gramatikal izugarria. Ondoren elementu bakoitza arbitrarioki berrinterpretatzen du: 'mineralezko beta aberatsaren zatia', bere euskal mordoilokeriak ezin izan dezakeen irakurketa. Honelakoxeak dira bere irakurketa guztiak. Iberiar BASEROKEIUNBAIDA euskaraz *matzer ok(a) una baida*: 'desitxuratua indigestioa ubide txikia badia' (*baida* mailegu erromanikoa da), azkenik 'bihurgunez jositako ubidearen senaia' bilakatzen dena.

Arrazoi osoz galde daiteke zein motatako egitura gramatikala erakusten duen Román del Cerroren manipulazioetatik ateratzen den "iberierak". Erantzuna: ezer ere ez. Román del Cerroren "iberieran" ez dago hizketaren zatirik: edozein morfok izen, aditz zein adjektibo gisa funtziona dezake, afixazio edo aldaketarik gabe, analistaren beharren arabera. Ez dago elementuen ordena finkorik: morfoak edozein

ordenatan etor daitezke, murrizketarik gabe, eta, ondorioz, morfo-sekuen-tziak batzuetan “esanahi zuzenean” irakur daitezke (aurreraka), baina beste batzuetan “alderantzizko esanahian” (atzeraka). Ez dago mugarik morfo-sekuen-tzien luzeran: zenbaitetan luzeagoak dira, zenbaitetan laburragoak. Hauxe da bidea. Baieztapen hauetatik guztietatik bat ere ez da Román del Cerroren lanaren nire balorazioa: autoreak berak esplizituki adierazten ditu guztiak. Oso zail gertatzen zait irakurleak honelako kontuak seriotan har ditzakeela sinestea, baina hizkuntzalari batzuek, hala ere, horixe egin dute.

4. Minoera, etruskoa, piktoera, sumeriera

Europako deszifratu gabeko hiru hizkuntza nagusiak, alegia, minoera, etruskoa eta piktoera, ez dira noski ahaztuak izan euskarari ahaideak bilatu nahi horretan. Gordon (1931) minoera euskara gisa irakurtzen saiatu zen; Ellisek (1886) eta Esandik (1946) gauza bera egin zuten etruskoarekin; eta Guter (1968) piktoeraz arduratu zen. Saiakera hauei buruz esan daitekeen onena irakurtzeko txit entrete-nigarriak direla da: Gordonek ez daki ezer euskarari buruz, eta lau autoreak norgehiagoka ari dira ea zeinek proposatzen dituen hankasartze bitxiak eta interpretazio zentzugabeak. Ikus Trask (aurki argitaratzekoa den a) haien lanetako zenbait adibide xeletarako.

Sumeriera kasu desberdina da. Inoiz edo behin, Britainia Handiko hizkuntzalari historiko gehienek gainetik bada ere irakurriko zuten M. Löpelmannen autodeklaraturiko euskararen “hiztegi etimologikoa” (1968), zeren eta ale bat baitago British Library-ko apalategi irekian, liburuak noiz iritsiko itxaroten dagoen aditua tentatu guran. Liburu hau fantasia hutsa besterik ez da, eta inola ere ez litzateke hartu behar informazio-iturri errespetagarri gisa. Eta autorearen fantasiarik gogokoen-a sumerieraren eta euskararen arteko lotura da, aukera duen bakoitzean jarraitzen duena. Halako aukerak ez dira berez gehiegi; izan ere, sumerierak, bere erro monosilabiko ugariarekin, ez du hain monosilabiko gutxi dituen euskararen antzik, eta Löpelmannek egin dezakeen hoberena ustekabeko antzekotasun saihestezinak seinatzea da.

Berriki, euskal-sumeriar ideia 8. atalean aipatzen den “denekaukasoar” makrofamilia proposatzen dutenek berpiztu dute, batez ere Bengtson (1991a)-n eta Bengtson (1991c)-ri egin iruzkinean. Lan hau 8. atalean azaltzen diren zailtasunez baldintzatua dago, eta bi edo hiru dozena antzekotasun nahiko zalantzazkoez osatua: sum. *gu* ~ *kú* ‘jan’ eta eusk. *aho*, sum. *zu* ‘ezagutu’ eta eusk. *entzun*, sum. *ér* ~ *ir* ‘malko’ eta eusk. *eri*, sum. *lim(mu)* ‘lau’ eta eusk. *lau(r)*, sum. *es* ‘etxe’ eta eusk. *etxe*, sum. *ud* ‘eguzki, egun’ eta eusk. *uda*, sum. *ak* ‘egin’ eta eusk. *egin*, sum. *ne* (eta aldaerak) ‘zer’ eta eusk. *nor*, sum. *ní* ‘norbera’ eta eusk. *ni*, eta abar. Kidekotasun gramatikal bakar bat ere ez da eskaintzen eta ezinezkoa da kasualitatezko antzekotasunen atzean ezer ikustea.

5. Kaukasoera

Euskara kaukasoar hizkuntza batzuekin edo guztiekin genetikoki lotzeko ahaleginak ia ehun urte hauetan egin izan dira, eta arlo honetan egin den lana seguruenik euskararen ahaiko genetikoaz diharduten gainerako lan guztiak batera baino handiagoa izango da. Eta hau ez da ikerketa hauetan arrakasta handirik lortu delako, antzekotasun tipologikoengatik baizik. Euskarak bere morfologia ergatiboa eta bere komunztadurazko aditz-sistema landua kaukasoar hizkuntza gehienekin partekatzen ditu neurri aldakorrean, eta komunean dituzten ezaugarri ez-indoeuropar hauek aski izan dira hainbat hizkuntzalarik hor aurkitu beharreko loturarik izan behar duela argi ikusteko. Uste arriskutsua, dudarik gabe, antzekotasun tipologikoez erlazio genetikoak identifikatzeko laguntza handia eman izana oso gutxitan frogatu baitute.

Oro har, kaukasoera eta euskarari buruzko lana artikulu honetan eztabaidatu ditudan beste lan gehienak baino askoz zuhurrago eta arretatsuagoa izan da. Schuchardtekin hasi zen neurri apalean. Schuchardtek euskarari lokarri ipar afrikarra aurkitzean zuen jarria bere interesik handiena, baina noizik behin, Schuchardt (1913)-an bezala, kaukasoar kidekotasun zenbait aipatu zituen. C. C. Uhlenbeck hizkuntzalari nederlandarra euskal-kaukasoar loturaren atzetik aritu zen bere karrera osoan, esaterako Uhlenbeck (1923, 1924, 1940-41, 1946, 1947)-an. Alfredo Tombetti hizkuntzalari italiarrak liburu oso bat egin zuen (1925) euskal-kaukasoar sustraikideekin osatu zerrenda luzea aldarrikatuz. Nikolai Marr hizkuntzalari georgiarrak, agian oraindik gutxi gorabehera errespetagarria zen garaietan, artikulu batzuk argitaratu zituen euskara eta kaukasoera konparatuz. Kaukasoeran aditua zen Georges Dumézil frantsesak bere iparraldeko kaukasoar hizkuntzei buruzko 1933ko liburuan kapitulu bat erabili zuen euskararen ustezko sustraikideak aipatzeko. René Lafon euskalari frantziarrak dokumentu-sorta ugari idatzi zituen euskal-kaukasoar lotura genetikoaren alde eginez eta zenbait dozena sustraikide proposatuz (Lafon 1933, 1944 [1. liburukiaren eranskina], 1948, 1951, 1952a, 1952b, 1957, 1967, 1968). Hans Voght norvegiar kaukasologoak bi artikulutan heldu zion gaiari eta sustraikide-zerrenda txikia proposatu zuen (Voght 1942, 1955), bere ondorioak besteenak baino negatiboagoak badira ere. Azkenik, Karl Bouda hizkuntzalari alemanak, euskal-kaukasoar lotura proposatu zutenen arteko sutsuenak, aurreko literatura guztia aztertu eta bere aldetik zenbait konparazio gehiago egin ondoren, artikulu-sorta batean (Bouda 1948, 1949, 1951, 1952) lanbide horretan zигilua ezarri zuen ustezko ia 500 sustraikide aurkeztuz.

Ikerketa hauetarik gehienak gorago eztabaidatu ditudan lanetako fantasiatik libre badaude ere, gertaera kategorikoa da ahaiko genetikoak ezartzean eskuarki espero den mailara ez direla iristen. Lafonen salbuespen partzialarekin (1948), zein gutxienez saiatu zen (konbentzigarritasun gutxiarekin) georgiera eta euskararen arteko zenbait korrespondentzia sistematiko identifikatzen, lan hau guztia kapitulu honen hasieran gaitzetsi dudan mailan gelditzen da: ikertzaileek ez dute ezer lortzen, eta zinez ez dira batere ahalegintzen, kaukasoar hizkuntza bateko edo beste-ko hitz eta morfemekin nolabaiteko antzekotasuna daukaten euskal hitzen eta morfe-men zerrendak pilatzen ez bada. Baina, hogeita hamazortzi bat hizkuntza aski desberdinekin, ezin zitzaketen antzekotasun horiek erraz aurkitu, batez ere

aipatzen dituzten kaukasoar “sustraikideak” ia kasu guztietan hizkuntza gutxi batzuetan aurkitzen diren elementuak direnean, zeinahi motatako aitzinkaukasoeran izan direnik ezin erakutsi daitezkeen elementuak hain zuzen ere.

Horra lan honetatik aukeraturiko adibide esanguratsu gutxi batzuk. Euskal *-tzu*, izenordain gutxi batzuetan aurkitzen den plural markatzailea, abkhazierako *-cwa* atzizki pluralarekin izan da parekatua; euskal *-en* atzizki erlatibozko esaldi-sortzailea mingrelierako *ni* ozta-ozta antzeko partikularekin izan da berdindua (nahiz eta euskal morfoa ziurrenik *-en* genitibo edutezko atzizkiaren espezializazio bat besterik ez den); euskal *haragi* txerkeserako *ḥ* ‘haragi’ hitzarekin; euskal *hotz* abkhazierako *s^w* ‘izotza’-rekin; euskal *etxe* lakerako *ča* ‘txabola’-rekin; euskal *larri* avarerako *erize* ‘beldur izan’-ekin; euskal *ezpel* georgierako *bza* eta mingrelierako *bzakali* ‘ezpel’-ekin (bi hizkuntza kartveliar hauek estuki ahaidetuak dira); euskal *oso* avarerako *čago* ‘bizi’-rekin; euskal *ahari* txetxenerako *εαχαρ*, inguserako *hāχαr*, eta batsbi hizkuntzako *αχrab* ‘bildots txikia’-rekin (iparrekialdeko kaukasoar hizkuntza hauek estuki ahaidetuak dira). Eta horrela segitzen du, elementuz elementu, orriz orri, artikuluz artikuluz.

Lan hau guztia Michelenak euskararen historia fonologikoa argitu aurretik egin zen, eta, horregatik, aipatu euskal formak sarritan 2.000 urte lehenago forma berbera izango ez zuketena hitzak dira. Hauetakoen artean daude *bihi* (< **bini*), *hezur* (< **enazur*), *ahantzi* (< **ana(n)tzi*), *jiri* (< *jaugin* < **eaugin*), *zain* (< **zani*), eta *-a* (< **har*) artikuluz mugatua, baina badira askoz gehiago. Aipatu euskal elementuen artean badira baita zenbait mailegu erromaniko ere, hala nola *bahe* eta *zango*. Eta, noski, ikertzaile hauek parekoa bilatzeko desegoki aurkitzen duten euskal hitza arbitrarioki segmentutan banatzea ez dute zalantzan jartzen.

Hala eta guztiz ere, lan-*corpus* hau inguru batzuetan gogo biziz izan zen onartua. Antonio Tovar hizkuntzalari espainiarrak euskarari buruzko bere zenbait lanetan (Tovar 1950, 1959a) zalantzarik gabe onartu zuen euskal-kaukasoar batasunaren proposamena, eta ez da zaila era berean aldeko ikuspegia izan zuten beste hizkuntzalari batzuk aurkitzea. Baina proposamenak baita ere aurkitu zuen Luis Michelenagandiko berealdiko oposizioa.

Michelena ez zen euskal-kaukasoar lotura genetikoaren ideia ertain etsaia. Guztiz kontrakoa: berak aitortua, pozez zoratzen jarriko zukeen euskarari ahaiderik aurkitu izanak, eta berak ere interes bizia jarri zuen honelako lanetan. Euskararen eta kaukasoeraren azterketa lexiko-estadistikoan ere parte hartu zuen (Tovar et alii 1961), eta, bere (1950a) artikuluan, bazter utzia zen euskal-georgiar paraleloaz ohartarazteraino iritsi zen. Edozein kasutan, oso garbi zuen zer hartu beharko zatekeen ebidentziatzat, eta berak ez zuen hor horrelakorik aurkitu.

Boudaren lanari buruzko bi kritikatan (1950b, 1953), Michelenak egurtu egiten du hizkuntzalari alemana bereziki euskal datuekin arinegi eta zehaztasun gutxirekin jokatzearatik, eta baita ezkondu nahi dituen puskak ateratzearen euskal hitzak arbitrarioki zatitzen dituelako ere, gelditzen den materiala antzinako “aurrizki” edo “atzizki” gisa arinkieriaz baztertzen duen bitartean. Bere (1964b) liburuan kexu da euskal-kaukasoar proposamenak kasualitatezko antzekotasunetan baino ez dau-

tzalako, gehienetan euskarari buruzko ezjakintasun lotsagarria erakusten dutelako, eta euskararen historiaurreaz den bezainbatean argi egiterik lortu ez dutelako. Eta, 1968an argitaratu artikulua batean, euskara eta kaukasoerari buruzko lana aski agortua zen garaian, Michelenak lan horren *corpus* osoa berraztertu zuen. Nahiz eta, beti bezala, gizalegez idatzia, kritika hau garratza da, are suntsitzaila. Michelenaren iritzi zuhurrean, argitarapen-zerrenda luze honetatik ezin daiteke atera inolako ebidentzia esanguratsurik. Arduraz pilatutako ustezko sustraikide-zerrenda hauek guztiak ez dira, Michelenaren ustean, euskara eta zeinahi kaukasoar hizkuntzaren arteko kidesun kasualen zerrendak baino. Michelena seguru dago antzeko "sustraikide"-zerrenda izugarria aurkituko litzatekeela euskara eta hogeita hamarren bat indoeuropar hizkuntzetako edozein laginen artean, prest balego inor haiek bilatzeko lana hartzeko. Berak ez du aurkitzen korrespondentzia sistematikoen antzik duen ezer: badirudi araua dela edozein euskal segmentu pareka daitekeela nolabaiteko antzekotasuna duen edozein kaukasoar segmenturekin, autorearen nahierara. Are eskainitako paralelo gra-matikalek gehienetan forma sinpleko oso morfo txikiak dakartzate, *-a*, *-n*, *-k* edo *-ra* bezalakoak, edozein hizkuntza oso deklinatuan erruz aurkitzea espero diren horietakoak, eta paralelo hauek inoiz ez dakarte berekin alternantzia sistematikorik.

Michelenak honako hau iradokiz bukatzen du bere kritika, alegia, bera aztertzen ari den lanen egileek euskara eta kaukasoera ahaidetuak zirelako besterik gabe onartuz hasi zirela, eta gero hori baieztatuko zuten adibideak biltzen besterik ez zirela aritu, beren lanaren inolako azterketarik egiten saiatu gabe. Michelenaren balorazioa, seguru nago, linguistika historikoa serio hartzen duen edozeinek onartuko du.

Michelenaren kritikak euskal-kaukasoar ekimen osoa (orain alferreko ahalegina balitz bezala utziz) erabat baztertu zuen, eta ia bi hamarkadatan ez dirudi apenas inork jarraitu zuen gaiarekin, Errusian (Lafon 1976) berrargitaratu ziren euskara-kartvelierari buruzko lan batzuk salbu. Ondoren, 1985ean, V.A. Chirikba abkhaziar hizkuntzalariak berriro heldu zion gaiari hamar orrialdeko artikulua batean, euskara eta iparraldeko zenbait kaukasoar hizkuntzaren arteko 90en bat hitz eta morfema gramatikal sustraikide proposatuz (kartveliera kanpo uzten du).

Chirikbaren idazkiak lehenagoko lana edo Michelenak hari egin gaitzespena dirudenez ezagutzen ez zuten hizkuntzalarien aldetik zenbait aldeko iritzi jaso ditu. Hau hala izanik, beharbada egoki dateke hemen bertan artikulua aipamen labur bat egitea (puntu puntuko kritika egiten da Trask (aurki argitaratzekoa den b)-n)).

Chirikbak proposatu 90 sustraikidetik, 45, justu erdia, Uhlenbeckek, Dumézilek, Lafonek eta Boudak egindako eta Michelenak gaitzetsitako proposamenen errepikapenak besterik ez dira. Gainerako 45ek berriak dirudite, baina ia "sustraikide" guztiek era bateko edo besteko arazo larriak erakusten dituzte. "Euskal" hitz horietako zenbait ez dira existitzen: **ar* atzizki plurala, **beri* 'hau bera', **ilu* 'mugimendu', **giz* 'gizon, gizaki', **ba* 'seme, haur', **kilte* 'giltza', **zartzu* eta **ziri*, biak 'zorrotz', eta **xor* 'txakur'. Euskal *kolko* aipatzen du 'emakumearen bularra' adierarekin; egiaz, bere esanahia 'jantziaren eta bularraren arteko hutsunea' da, eta baita 'badia, golkoa' ere, eta *colpus* latindarretiko mailegu garbia da. Euskal *aditu*

aipatzen du, *auditum* latindarretiko mailegua, euskal *busti*, okzitanierako *musti* 'busti' (latineko etorkia duena eta ingeleseko *moist*-ekin ahaidetua) hitzetik mailegatua, eta euskal *gela*, *cellam* latindarretiko mailegua. Aipatzen du ere (eta hau ia sinestezina da) euskal *abets* 'ahots' eta abkhazierarekin erkatzen du, baina euskal hitza Sabino Aranak XIX. mendearen bukaeran asmatutako neologismo bat da.

Euskal *gurpil* eta *inguru* hitzak, bere ustez ahaidetuak, *g^w Vr-* 'uztai, eraztun' erako kaukasoar erroekin konparatzen ditu, baina *gurpil* hitz elkartua da *gurdi* eta *-bil* osagaiez osaturikoa, bigarren elementuak daramalarik "biribiltasun" kontzeptua, eta *inguru* latineko *in gyro*-tik mailegatua da. Euskal *belarri* erkatzen du *IV*-formako kaukasoar hitzekin, arinegi erauziz **be-* 'gorputz-atalen aurritzia', baina ziurraski *belarri* antzinagoko **berarri*-ren disimilazioa da, eta 'gorputz-atalen aurritzia' ez du erauzten euskal *beso* hitza kaukasoar formekin konparatzen duenean, hain zuzen *b-* horren beharra duelako bere parekatzea egiteko. Euskal *magal* gaizki itzultzen du ('sabel'), *potzo* 'artzakur' eta *otso* hitz bera direla onartzen du (batak bestearekin ez du zerikusirik), eta konparaketarako *maguri* 'marrubi' aldaera dialektal ilun eta oso lokala aukeratzen du eta ahaztu egiten ditu forma zabalduenak baina dirudienez gutxien komeni zaizkionak. Ezkontzak lortzearren, oso pozik ezabatzen ditu *bizkar* hitzaren lehen silaba, *handi*-ren lehen silaba, *lagun*-en azken silaba, eta *belaun*-en lehen eta azken silaba. Euskal *mara-mara* 'ugari' esan nahi duen adjektibo gisa azaltzen du; egiaz, 'etengabe' esan nahi duen aditzondo onomatopeikoa da, eta bere formak erakusten du ezin daitekeela izan oso antzinakoa. Euskal *jín* 'etorri' abkhazierako *-i-* -rekin konparatzen du, *jín* aditza *jaugin* (< **eaugin*) sinonimoaren kontrakzioa besterik ez bada ere. Mendebaldeko euskal *igar* 'lehor' aipatzen du, komeni ez delako ekialdeko *eihar* forma kontserbadoreagoa ahaztuz. Euskal *txiki* aipatzen du kontuan izan gabe bere asmorako balio ez duen *tipi* zaharragotik datorrela. Euskal *ze* 'txiki' eta *txe* haren forma palatalizatua zerikusirik ez balute bezala aipatzen ditu eta kaukasoar hitz desberdinekin konparatzen ditu, eta ez da konturatzen hitz hau bere ezkontzak zapuzten dituen antzinagoko **zene*-tik datorrela. Hiru erakusleez egiten duen tratamendua nahaste-borraste hutsa da: haien formak nahasten ditu, haietako bat gaizki itzultzen du eta kasu-hondarkia enborraren parte balitz bezala tratatzen du.

Azkenik, Chirikbaren lanak, gainerako guztiek bezala, korrespondentzia sistematiko bat ere ez du identifikatzen. Proposamenetarako behar dituen kontsonante-parekatze zenbaiten bere laburpen oso murrizak bakarrik balio du agerian jarzteko euskal kontsonante bakoitza edozein kaukasoar hizkuntzatarako kontsonante mordo batekin lotzen dela, inolako eredu hautemangarririk gabe.

Laburtuz, Chirikbaren artikulua ez da inola ere lehenagoko lanaren aldean aurrerakuntza bat, eta *de facto* duen hankasartze kopuru izugarriak gutxienez euskal hitzak zuzen aipatu eta iruzkintzen zituen aurreko lana baino askoz kaskarragoa egiten du. Ez dago arrazoirik lan hau serio hartzeko, eta oraindik gaur ez dago euskara eta zeinahi kaukasoar hizkuntza genetikoki lotzeko inolako ebidentziarik. Literaturan bakanak ez diren «euskara ezin daiteke bereizi kaukasoar hizkuntzetatik» bezalako baieztapenak fantasiak besterik ez dira.

Amaitzeko, aipatu nahi nuke Jon Bengtson hizkuntzalari amerikarrak berriki ostera berpiztu duela euskara-ipar kaukasoar ideia, baina Bengtsonen xedea bai euskara eta bai ipar kaukasoera talde askoz handiagoan txertatzea dela. Horregatik, lan honi buruzko eztabaida 8. atalerako uzten dut.

6. Akitaniera

Bagatoz azkenean fruiturik eman duen proposamen bakarrera. Julio Zesarren arabera, ia Galia osoa bere egunean zeltek okupatu zuten bitartean, hegomende-baldean berak ondoko zeltiarrekin konparatuz erabat desberdintzat jotzen duen eta *Aquitani* (edo akitaniarrek) deitzen duen herri bat bizi zen. Akitaniera latindar testuetan sartuak dauden gutxi gorabehera 400 pertsona-izen eta 70 jainko-izenetan dago dokumentatua. Testu hauetatik gehienak inskripzioak dira, botozkoak eta hilobietakoak, baina badira ere literatur izaera duten gutxi batzuk. Akitanieraz ez dago testu loturik, baina izen batzuk formaz elkartuak dira edo eratorpen-atzizkiak dituzte, eta haietako batzuek latinezkoen ordeaz kasu-hondarki indigenak diruditenak erakusten dituzte, edo lantzean behin latinezkoen erantsirik agertzen dira. Testu gehienek izaera kontuan izanik, ez da harritzekoa haiek sarritan izendatu pertsonaren sexua, adina edo familia azpimarratzea. Eta datu horiek oso egokiak dira.

Akitaniar pusketek euskarari loturiko hizkuntza bat erakutsi zezaketelako ideia euskalarien eta erromanisten belaunaldiek susmatu izan dute. Horietako askok antzekotasun tentagarri hori seinatu zuten, eta beste batzuek, beharbada Luchairerekin (1877) hasita, aski argi adierazi zuten euskara eta akitanieraren arteko harreman estua, edo are berdintasuna. Seymour Riccik (1903) bildu eta argitaratu zuen akitaniar izenen zerrenda bat. Baina soilik Luis Michelenak 1954an (Michelena 1954a) argitaratu zuen monografia luzearekin (akitaniar materialaren *corpus* osoa aztertuz eta katalogatuz) izan zen posible ebidentzia neurtzea. Michelenaren ondorioak funtsezkoak dira, eta Gorrochateguik egindako lanak sendotu egin ditu (1987a eta liburu honetan).

Lehenik, akitaniar elementu asko nabarmenki euskaldunak dira eta beste asko euskalduntzat jo daitezke. Bigarrenik, erabilitako ortografiaren mugekin, elementu hauek eta beren euskal bikoteak berdin-berdinak dira, eta aitzineuskararako aparte berreraikitako formekin guztiz bat datoz. Hirugarrenik, sexu-marka daramaten euskal hitzekin identifikatutako elementuak hutsik gabe gertatzen dira dagozkien sexu-izenekin. Laugarren, akitaniar testuetan azaltzen den fonologi sistema aitzineuskararako berreraikitakoaren oso antzekoa da. Ondoko puntuok seinala ditzakegu: p -ren urritasuna, geminatuen maiztasun handia, m -ren urritasuna, h -ren maiztasun altua, hitz-hasierako kontsonante-taldearen ausentzia eta s , ss , x eta xs -ren arteko gorabehera ez-sistematikoa, erromatar alfabetora egokituak izan zitezkeen txistukari gehiagoren presentzia iradokitzen duena. Aspektu hauetan guztietan, akitaniera hertsiki bat dator Michelenak egin aitzineuskararen berreraiketarekin. Azkenik, akitaniar izenek, elementu periodikotan zati ditzakegun neurrian, euskal hitzen egitura mota bera erakusten dute: enbor bakarra, edo bi enborreko sekuentzia, edo hauetako edozein gehi atzizkia.

Ondorioak saihestezina dirudi: akitaniera hain da euskarari hertsiki ahaidetua non, arrazoi praktikoengatik, euskararen gutxi gorabeherako arbaso zuzentzat eduki dezakegun. Horrek esan gura du Galia hegomendebaldeko eremu handi batean euskararen antzinako forma bat hitz egiten zela, Pirinioetako zati handiengan bezala (beste datu batzuetatik dakigunez), eta, seguruenik, gutxienez Euskal Herri modernoaren ekialde eta iparraldean.

7. Afrikar hizkuntzak

Euskara Afrikako zenbait hizkuntzarekin ahaidetua egon daitekeelako ideia zaharra eta iraunkorra da, euskara Mediterraneo kostaldean inoiz hitz egin izan dela sinesteko arrazoirik ez badago ere, eta nahiz eta euskara egitura aldetik afrikar hizkuntza gehienekin –bereziki hurbilen dituen afroasiarrekin– alderaturik oso desberdina izan.

Euskal-afrikar lotura defendatu zuen lehenetarikoa Hugo Schuchardt hizkuntzalari alemana izan zen. Euskara eta iberiera hizkuntza bera zirelako ideia eta iberiarrak Penintsulara Afrikatik sartu zirelako gehienen ustea izan ziren euskarari ahaideak Afrikan bilatzearen motibazioak. Schuchardtek, bere zenbait lanetan, kezka handiz konparatu zuen euskara Afrikako eta Asiako hizkuntza mordo batekin. 1913an 105 euskal hitzeko zerrenda bat argitaratu zuen, eta hitz hauek haien artean denak ahaidetuak ez ziren dozena bat inguru afrikar hizkuntza desberdinetako zenbait hitzekin konparatu zituen; zerrenda hau, antzekotasun kasualak besterik ez dituen aldetik, arriskurik gabe bazter daiteke. Baina Schuchardtek bereziki berberearekiko lotura lagundu zuen. Harrigarri dirudit honek, eta bi arrazoiengatik: (1) tipologikoki ezin desberdinagoak dira (euskararen aditza azkenean doa eta hizkuntza eranskaria da; berberean aditza hasieran doa eta barneflexioa du); (2) aditu guztiek onartzen dute berbera afroasiar familia handiaren adar bat besterik ez dela, eta, horrengatik, euskararen eta berberearen arteko konparazio hutsak berez zentzugabea dirudi.

Lehen iradokizun haiek euskal hitz batzuk berbere hitzen oso antzekoak direlako behaketan baino ez ziren geratu. Hona hemen sarrien aipatu izan diren hitzak, Anderson (1988)-tik hartuak; Andersonek ez du zehazten zein berbere hizkuntzatatik hartu diren bere datuak, eta nik bere euskal aipamenetan akats txiki batzuk isilean zuzendu ditut:

Euskara	Berberea
<i>izar</i>	<i>izeren</i>
<i>izen</i>	<i>isem ~ izm</i>
<i>aker</i>	<i>iker ~ aker</i> 'bildots'
<i>anai(a)</i>	<i>ana</i>
<i>ama</i>	<i>imma</i>
<i>zamari</i>	<i>zagmarz</i> 'behor'
<i>-a</i>	<i>-a</i>

Zazpi bikote hauetatik batzuk berehala bazter daitezke euskararen historiaren ezagutza apala izanez gero. *-a* euskal artikulua 3. graduako erakuslearen *har-*enborretik dator zalantzarik gabe; beraz, erabat euskararen barruko etorkia du, eta

ezin da arriskurik gabe atzera bota erromatar aurreko garaira. Eta ekialdeko euskal *zamari* 'zaldi' latineko *sagmarius* 'zama-zaldi'-tik hartutako mailegua besterik ez da. Berberearen aldetik ere arazoak daude: Jamal Ouhallak esan dit berbereko *isem* arabierako *ism*-etik hartua dela, eta, gainera, berbere hitzuna den Ouhallak ez ditu ezagutzen aipatu gainerako hitz berbere gehienak. Honek iradokitzen digu hitz horiek oso lokalak direla eta ez dutela panberbere kategoria, eta ondorio hau indartzeko 'anaia' esateko berbere hitza Mukarovskyk (1969: 33) zehazki tuareg gisa aurkezten du (Mukarovskyk *aña* forman aipatzen du).

Euskal-berbere hipotesia Hans Mukarovskyk berpiztu du berriki (1963-64, 1969, 1981). Mukarovskyk bere artikuluetan dakartzan ustezko sustraikide mordoia artikulua honen hasieran zerrendatu dudan eragozpen guztietara irekita dago: erromanikotiko mailegu garbien aipamenak, antzinatasun gutxiko hitz oso lokalen aipamena, haur-hitzen eta aski argiro berriki eraturako beste formazio "adierazkor" batzuen aipamena, hitz-elkartu gardenen analisi okerra, euskararen historia fonologikoa kontuan hartu ez izana eta hitzen zatikatze arbitrarioak (nahiz eta Mukarovskyk gehiagotan zatikatzen dituen bere berbere hitzak bere euskal hitzak baino). Adibideetan sartzen ditu maileguak diren *matel*, *tirria* eta *lili*, *aba* 'aita' XIX. mendeko neologismo bitxia, *mix* ~ *mox* (katuari deitzeko erabiltzen den hitza), *pix(a)* ~ *piz(a)* eta *zaraza(ra)*, bat-bateko zaratak adierazteko euskal onomatopeikoa.

Eskaintzen diren antzekotasun gramatikal apurrak ez dira inola ere konbentzigarriak. Gerundioa eratzeko *-te* euskal atzizkia iraupena adierazten duen atzizki izen-sortzaile baten beranduko garapena da ageriki (ikus liburuki honetako nire beste artikulua), baina Mukarovskyk aditz-izenak eratzen dituen *t(i)*- aurrizki berberearekin konparatzen du. *-te* euskal morfoa, zenbait adizki pertsonaletan pluraltasuna markatzen duena eta ia ziur txistukari ahoskabeen ondorengo *-de* pluralaren *-te* aldakiaren hedapena dena, aditzetan hirugarren objektu plurala markatzen duen *-ten* atzizki berberearekin konparatzen du. *-en* euskal genitiboazko kasu-atzizkia (**-n* gisa gaizki aipatua, eta nahiz eta batzuentzat izenordainen *-e* genitiboazko atzizkia baino geroagoko jatorria duena) *n* berbere preposizioarekin konparatzen du, zein antza denez izenen arteko lotura moduren bat adierazteko erabiltzen baita. Marjinalki interesgarriagoak dira adizki batzuetako *-k* (< **-ga*) euskal atzizki maskulinoa eta *-n* (< *-na*) atzizki femeninoaren eta antzeko *-ak* eta *-am* berbere atzizkien arteko konparaketak. Tipikoagoa da, hala ere, aurreko aditz bereizi batetik datorren *-erazi* euskal atzizki arazlearen eta *s-* berbere aurrizki arazlearen arteko konparaketa (baina euskalari guztiek onartzen dute *-erazi* lehenagoko *-ra-* arazlea ordezkatu duen berrikuntza bat dela).

Egia esateko, Mukarovsky gutxienean euskara eta berberearen arteko korrespondentzia sistematikoak identifikatzen saiatzen da, baina korrespondentzia hauek oso gutxitan hartzen dute hitz bakoitzean segmentu bakar bat baino gehiago, eta oraindik ere behartua dago norabide bietan era askotako ezkontzak aitortzera. Horrela, euskal *t* berbereko /t/, /T/ eta /D/ guztiekin lotzen du, baina euskal *tz* ere ezkontzen du /t/, /T/ eta /d/ guztiekin; euskal *s* berbereko /s/, /z/ eta /z̃/ guztiekin lotzen du, eta berdin euskal *z*; eta badira horrelako beste kasu batzuk. Hemen ez dugu inolako korrespondentzia sistematikorik: hemen dugun bakarra da

paragrafo bereiziak Mukarovsky onartzera behartua den ezin konta ahalako lotura konkretu guztientzat.

Euskal-berbere lotura genetikoaren kasuak, beraz, arretaz bildutako antzekotasun kasualen zerrenda baten kutsua dauka, beste askotxok bezala; euskal—berbere zerrenda beste batzuen baina zerbait luzeagoa bada, Mukarovskyk eta beste batzuek hori osatzen hamarkadatan egin ahalegingenatik da.

8. Euskara eta makrofamiliak

Azken urteotan hizkuntz superfamiliaren (existitzen diren familien metaketa zabalak eta bi edo hiru kontinentetan hedatuak diren hizkuntza isolatuak) posibilitatea aztertzeko interesa geroz eta handiagoa da. Ustezko taldekatze hauetatik zabalduen artean nostratikoa, eurasiarra, austriarra, amerindiarra eta denekaukasarra daude.

Oro har, euskarak harrigarriki ez du arreta handirik jaso lan hauetan: nostratikoan adituek ez dute euskararekiko interesik erakutsi, eta antza denez Greenbergen eurasiarrean ez du lekurik izango. Denekaukasarra, alabaina, beste kontu bat da. Hedatzen ari den konstruktua hau, mendebaldeko Europatik ekialdeko Asia, Siberia, Kanada eta Estatu Batuetako hegomendebaldera zabaltzen da, eta berriki arte oso gutxi argitaratu da Errusian izan ezik (Shevoroshkin (1991)-n eta Ruhlen (1994a)-n bildutako artikulua koadroa aldatzen hasi badira ere). Oraindik ez dago ustezko superfamilia honen partaideei buruzko proposamen kanonikorik, baina nik ikusi ditudan txostenek beste superfamilia guztietako hondakinekin egindako bilduma baten koadro bitxia erakusten dute. Sinotibetanoaren gunearekin hasita, proposatzaileek ipar kaukasoa (baina ez jadanik nostratikoan sartua zen hego kaukasoa), yeniseiera (baina ez jadanik eurasiarrekin loturiko beste siberiar hizkuntzak), na-denera (baina ez beste Iparramerikako hizkuntzak, jadanik eura-siarrari edo amerindiarrari esleituak), eta isolatu mordo bat: iberiera, etruskoa, hatiera, hurriera, urartuera, sumeriera, burushaskia eta nahalia.

Hizkuntza isolatuen atzemate gogotsu hau azkenean euskarara iristera zuzendua zegoen, eta hori jada gertatu da: Jon Bengtsonnek eta Merritt Ruhlenek, gutxienez, euskara denekaukasoa konstruktuan sartzeara proposatu dute (Bengtson 1990, 1991a, 1991b, 1991c, 1991d, 1991e, 1991f, 1992, 1993, 1994a, 1994b, 1995; Ruhlen 1991, 1992, 1994b; Bengtson & Ruhlen 1994, Starostin & Ruhlen 1994). Berez, Bengtson & Ruhlen (1994: 228) euskara denekaukasoa familiari “ziurtasunez” erants dakiokela baieztatzeraino iristen dira. Baieztapen harrigarria da hau, Bengtson, Ruhlen eta beste batzuek orain arte emandako datuak ez baitira, erakusten saiatuko naizenez, Swadesh (1972) bere euskara-na-dene proposamenerako eskaini zuen datu-eza baina apenas funtsezkoagoak. Beren “datuen” artean, autoreek Chirikbak (1985) ipar kaukasoa eta euskara ahaidezteko egin zuen alferreko saialdia aipatzen dute, 5. atalean eztabaidatu eta zentzugabea izateagatik baztertu dudana (Bengtson (1993: 3) «aurreranzko urrats erraldoi» gisa deskribatzen badu ere), baina baita ere aurkezten dituzte denekaukasorari esleitutako beste zenbait hizkuntzaren (ipar kaukasoa, yeniseiera eta burushaskia barne) eta euskararen arteko sustraiak batzuk. Hemen labur

aztertuko dut haien lana. Lan honen *corpus* osoaren azterketa kritiko zehatz eta sakonagoa Trask (aurki argitaratzekoa den b)-n aurkezten da.

Autore hauek guztiek euskal datuen ezagutzagabetasun osoa agertzen dute. Hitzak arbitrarioki eta oker zatitu, eta konparaziorako existitzen ez diren “erroak” ateratzen dituzte. Erromantzetiko mailegu garbiak milaka urtetan iraganera igortzen dituzte, elementu fonestetiko eta haur-hitzak bezala: *mulo* ‘(belar-/garo-) meta’, *moto* ‘buru-estalki’, *kasko*, *kuma* ‘zurda’, *kokot*, *pinpilin* ‘tximeleta’, *mama* ‘likido’, eta beste asko eta asko. Aldaerak eta forma dialektal ilunak heda-tuagoak eta lehenago dokumentatuak baino hobeagozat jotzen dituzte, eta euska-raren historiaurre fonologiko ongi dokumentatu osoa azalpenik eman gabe ahaztu egiten dute autoreen helburuetarako hobeto datozen berreraiketa bitxien mesede-tan. Artikulu bakarrean, Bengtsonen euskal *egun* aitzindenekaukasoar (PDC) erro batetik erakartzen du, hari lotutako *egu-* forma eta *eguzki* bere konpo-satua PDC bigarren erro batetik, eta azken hitzaren aldakia den *eki* (< **egu-ki*) hirugarren erro batetik. Bizkaierako *urtxakur* ‘igaraba’ (*ur* + *txakur*, eraikuntza berria) Ruhlenek aitzinyeniseierako (PY) **tāχVr* ‘igaraba’-rekin berdintzen du, eta euskal *emakume* (*eme* + *-kume*) PY **qVm* ‘emakume’-rekin. Euskal *makutsik* (< *mauka* latindarretiko mailegua + *huts* + *-ik* adberbiala) zentzugabeki analizatua da **kuts* ‘mauka’ antzina-ko erroa bailuen, eta *eskubarne* (< *esku* + *barne*) **bar* ‘ahur’ erroa balu bezala. Ezinezkoa da lan hau seriotan hartzea.

9. Laburpena eta ondorioak

Akitanieraren aztarna urriak kasu askotan hain garbi dira euskaldunak, non aditu gutxik jartzen baitute zalantzan akitaniera euskararen antzinako forma bat dela, eta, beraz, ziurra dirudi ondorioztatzea, komunzki sinestu ohi den bezala, euskara dela bizirik dirauen mendebaldeko Europako azken aurreindoeuropar hizkuntza. Gainerakoan, euskara beste zeinahi hizkuntza bizi zein hilekin ahaidetua dela konbentzitzeko moduko seinale txikienik ere ez dago. Kontrako baieztapen ugari tximeleta-bilduma egiteak baino gutxi gehiago balio duen metodologia dute denek ezaugarri, eta ia denek, gainera, euskal datuen ezjakintasun lotsagarria erakusten dute. Kontuan izanik metodologia ahul hau eta euskararen ezjakintasuna, ez da harrizkera lan horretan beren ahaleginean urteak edo hamarkadak eman dituzten ikertzaileek euskararen eta gogoko dituzten beste hizkuntzen artean antzekotasun-zerrenda luzeak aurkitzea, baina ez dago arrazoirik zerrenda hauek seriotan hartzeko: kasu bakoitzean, aurkezturiko zerrendaren luzerak hau osatzen emandako denboraren eta ahaleginaren zenbatekoa baino ez du islatzen. Alde batetik, ez dago arrazoirik dudan jartzeko ausardia bereko ikertzaile batek polinesieran, edo bantuan, edo algonkineran euskal “sustraikeiden” pareko zerrenda luzea aurki dezakeela. Bestaldetik, ez dago arrazoi gutxiago dudan jartzeko ikertzaile ausart batek kaukasoar edo berbere “sustraikeiden” pareko zerrenda ikaragarria lor dezakeela norvegierarako edo ingeleserako ere. Euskara izateak, eta ez norvegiera, hainbesteko konparazio-arduraren objektu, euskararen estatus isolatua baino ez du islatzen. Baina ahalegin heroiko horiek guztiek ez dute ezer egin estatus isolatu hau aldatzeko: nik dakidanez, euskarak beti izan den bezain isolatua jarraitzen du egun.

Erreferentziak

- Adams, B., (1980): "Place-names from pre-Celtic languages in Ireland and Britain", *Nomina* 4, 46-63.
- Agud, M & Tovar, A., (1988-): *Materiales para un diccionario etimológico de la lengua vasca*. ASJU-ren gehigarriak XIII, XIX, XXIV, XXVI, XXX, XXXIII, XXXVII.
- Anderson, J. M., (1988): *Ancient languages of the Hispanic Peninsula*, MD: University Press of America, Lanham.
- Azkue, R. M. de, (1905): *Diccionario vasco-español-francés*, Bilbo.
- Bengtson, J. D., (1990): "An end to splendid isolation: the Macro-Caucasian phylum", *Mother Tongue* 10.
- , (1991a): "Notes on Sino-Caucasian", in Shevoroshkin 1991, 67-129.
- , (1991b): "Some Macro-Causacian etymologies", in Shevoroshkin 1991, 130-141.
- , (1991c): "Macro-Caucasian phonology" (part I), in Shevoroshkin 1991, 142-161.
- , (1991d): "Macro-Caucasian: a historical linguistic hypothesis", in Shevoroshkin 1991, 162-170.
- , (1991e): "Some Macro-Causacian etymologies", in Shevoroshkin 1991, 172.
- , (1991f): "Macro-Caucasian again", *Mother Tongue* 13, 19-26.
- , (1992): "Macro-Caucasian phonology (revised version)", *Nostratic, Dene-Caucasian, Austric, and Amerind* ed. Vitaly Shevoroshkin, 342-352, Bochum: Brockmeyer.
- , (1993): "The Macro-Caucasian hypothesis", *Dhumbadji!* 1(2), 3-6.
- , (1994a): "Comments on Colarusso", *Mother Tongue* 22, 13-16.
- , (1994b): "On the genetic classification of Basque", *Mother Tongue* 22, 31-36.
- , (1995): "Is Basque isolated?", *Dhumbadji!* 2(2).
- & Merrit Ruhlen, (1994): "Global etymologies?", in Ruhlen 1994a, 277-336.
- Bouda, K., (1948): "Baskisch und Kaukasisch", *Zeitschrift für Phonetik* 2, 182-202; 336-352.
- , (1949): *Baskisch-Kaukasische Etymologien*, Carl Winter, Heidelberg.
- , (1951): "L'euskaro-caucasique", *Homenaje a D. Julio de Urquijo*, vol. III, 207-232, Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País, Donostia.
- , (1952): "Neue Baskisch-kaukasische Etymologien", *Acta Salmanticensia, Filosofía y Letras* 5(4), 3-6.
- Castro Guisasola, F., (1944): *El enigma del vascuence ante las lenguas indoeuropeas*, Consejo Superior de Investigaciones Científicas, *Revista de Filología Española* ren gehigarriak, 30, Madril.
- Catford, J.C., (1991): "The classification of Caucasian languages", *Sprung from Some Common Source: Investigations into the prehistory of languages* ed. Sydney M. Lamb & E. Douglas Mitchell, 232-268, Stanford Univ. Press, Standford.
- Chaho, J. A., (1824): "Comparaison du basque avec le sanscrit", *Journal de la Société Asiatique* 16.
- Chirikba, Vjacheslav A., (1985): "Baskskij i severokavkazskie jazyki" ["Basque and the North Caucasian languages"], in *Drevnjaja Anatolija* [Ancient Anatolia] ed. by B.B. Piotrovskij, 95-105, Nauka, Mosku.
- Corominas, J. & Pacual, J. A., (1980): *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico*, Gredos, Madril.
- Darricarrère, J. B., (1885): *La langue basque et les idiomes aryens*, E. Bougouin, Barcelonnette.
- , (1903): "La théorie des racines communes aux langues indoeuropéennes et à l'idiome basque", *Bulletin de Biarritz-Association* 8, 136-144.
- , (1912): "La langue basque est une langue indo-européenne", *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres, et Arts de Bayonne* 33, 116-119.

- Dumézil, G., (1933): *Introduction à la grammaire comparée des langues caucasiennes du nord*, Paris: Bibliothèque de l'Institut français de Léningrad, vol. XIV. Ch. V: "Caucasien du nord et basque", 123-149.
- Ellis, R., (1886): *Sources of the Etruscan and Basque languages*, Trübner, Londres.
- Esandi, N., (1946): *Vascuence y etrusco: Origen de los lenguajes de Italia. Documentos prehistóricos. Estudio comparativo*, Univ. de Buenos Aires, Buenos Aires.
- Frank, Roslyn M., (1980): *En torno a un mito: el euskara y el indoeuropeo*, Hordago, Donostia.
- Gómez-Moreno, M., (1949): *Misceláneas: Historia, arte, arqueología*, Excerpta: "La escritura ibérica y su lenguaje", 257-281, Consejo Superior de Investigaciones Científicas, Madrid.
- Gordon, F.G., (1931): *Hrough Basque to Minoan*, Oxford Univ. Press, Oxford.
- Gorrochategi, J., (1987a): "Vasco-Celtica", *Anuario del Seminario de Filología Vasca 'Julio de Urquijo'* 21, 951-959.
- , (1987b): "Die vorrömische Onomastik Aquitaniens", *Beiträge zur Namen Forschung, Neue Folge* 22, 343-355.
- , (1995): "Basque and its Relatives in Antiquity" in Hualde & Lakarra & Trask 1995.
- Hualde, J. I., Lakarra, J.A. & Trask, R.L., (arg.), (1995): *Towards a History of the Baque Language*, Current Issues in Linguistic Theory 131, John Benjamins Publishing Company, Amsterdam / Philadelphia.
- Guitier, H., (1968): "La langue des Pictes", *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* 24, 281-321.
- Hubschmid, J., (1960): *Mediterrane Substrate mit besondere Berücksichtigung des Baskischen und der westöstlichen Sprachbeziehung*, Francke, Bern.
- , (1963): *Thesaurus praeromanicus, Vol. 1*, Francke, Bern.
- , (1965): *Thesaurus praeromanicus, Vol. 2: Probleme der baskischen Lautlehre und baskisch-vorrömanische Etymologien*, Francke, Bern.
- Humboldt, W. von, (1821): *Prüfung der Untersuchungen über die Urbewohner Hispaniens vermittelt der Vaskischen Sprache*, Span, [= F. Echebarria 1959, *Primitivos pobladores de España y la lengua vasca*, Madrid, 1959].
- Lafon, R., (1933): "Basque et langues kartvèles: À propos des postpositions basques formées au moyen de -gan", *Revista Internacional de los Estudios Vascos* 24, 150-172.
- , (1944): *Le système du verbe basque au XVI^e siècle*, 2 liburuki, Bordele, Repr., Donostia-San Sebastián: Elkar, 1980, Vol. 1: Eraskina: "Quelques correspondances morphologiques entre le basque et les langues caucasiennes", 527-535.
- , (1948): "Correspondances basques-caucasiennes", *Eusko-Jakintza* 2, 359-370.
- , (1951): "Concordances morphologiques entre le basque et les langues caucasiennes", part 1. *Word* 7, 227-244.
- , (1952a): "Le basque et les langues caucasiennes (suite et fin)", *Word* 8, 80-94.
- , (1952b): "Études basques et caucasiennes", *Acta Salmanticensia, Filosofia y Letras* 5 (2), 5-91.
- , (1957): "Le géorgien et le basque sont-ils des langues parentes?", *Bedi Kartlisa* 26-27 (November).
- , (1967): "La linguistique basque et caucasique", *Revue de l'enseignement supérieur (Paris)* 3-4, 56-66.
- , (1968): "Pour la comparaison du basque et des langues caucasiennes, I: Les indices de personne dans la conjugaison basque", *Bedi Kartlisa* 28, 13-26.
- , (1976): *Baskskij jazyk i basksko-kavkazskaja gipoteza* [Euskara eta euskal-kaukasoearen hipotesia], Tbilisi.

- Larramendi, M. de, (1728): *De la antigüedad y universalidad del Bascuenze en España; de sus perfecciones y ventajas sobre otras muchas lenguas. Demostración previa al Arte que se dará a luz desta lengua*, Antonio Joseph Villagordo, Salamanca.
- Löpelmann, M., (1968): *Etymologisches Wörterbuch der Baskisches Sprache*, de Gruyter, Berlin.
- Luçhaire, A., (1877): *Les origines linguistiques de l'aquitaine*, Véronèse.
- Michelena, L., (1949): "Voces vascas", *Emerita* 17, 195-211. Repr. in Michelena, 1988, vol. I, 448-457.
- , (1950a): "Notas etimológicas vascas", *Emerita* 18, 467-481. Repr. in Michelena, 1988, vol. I, 458-466.
- , (1950b): "De etimología vasca", *Emerita* 18, 193-203. Repr. in Michelena, 1988, vol. I, 439-444.
- , (1952): Review of Tovar 1949, *Emerita* 20, 545-552. Repr. in Michelena, 1988, vol. I, 85-90.
- , (1953): Review of Bouda 1952, *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* 9, 141-144.
- , (1954a): "De onomástica aquitana", *Pirineos* 10, 409-458. Repr. in Michelena, 1985, 409-445.
- , (1954b): "La posición fonética del dialecto vasco del Roncal", *Via Domitia* 1, 123-157. Repr. in Michelena, 1988, vol. I, 273-297.
- , (1955): "Cuestiones relacionadas con la escritura ibérica", *Emerita* 23, 265-284. Repr. in Michelena, 1985, 357-370.
- , (1957): "Las antiguas consonantes vascas", in *Miscelánea homenaje a André Martinet*, vol. I, 113-157. La Laguna. Repr. in Michelena, 1988, vol. I, 166-189.
- , (1958): "Hispánico antiguo y vasco", *Archivum* 8, 33-67. Repr. in Michelena, 1988, vol. I, 99-106.
- , (1961): *Fonética histórica vasca*, Donostia-San Sebastián: Diputación de Guipúzcoa, Publicaciones del Seminario de Filología Vasca 'Julio de Urquijo', 2. ed. zabalagoa, 1977, 3. ed., 1985.
- , (1961-62): "Los nombres indígenas de la inscripción hispano-romana de Lerga (Navarra)", *Príncipe de Viana* 82/83, 65-74. Repr. in Michelena, 1985, 446-457.
- , (1964a): *Textos arcaicos vascos*, Ediciones Minotauro, Madrid.
- , (1964b): *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Auñamendi, Donostia. Repr. in Michelena, 1988, vol. I, 1-73.
- , (1967): Review of Hubschmid 1965, *Zeitschrift für romanische Philologie* 83, 602-609. Repr. in Michelena, 1985, 321-328.
- , (1968): "L'euskaro-caucasien", *La langage* ed. André Martinet, 1414-1437, Paris. Repr. in Michelena, 1985, 458-475.
- , (1971): "Toponimia, léxico y gramática", *Fontes Linguae Vasconum* 3, 241-267. Repr. in Michelena, 1987, 141-167.
- , (1972): "Etimología y transformación", *Homenaje a Antonio Tovar*, 305-317, Gredos, Madrid. Repr. in Michelena, 1985, 296-408.
- , (1973): "Sobre la posición lingüística del ibérico", *Archivo Español de Arqueología (Homenaje a don Pío Beltrán)* 7, 147-153. Repr. in Michelena, 1985, 334-340.
- , (1974): "El elemento latino-románico en la lengua vasca", *Fontes Linguae Vasconum* 6, 183-209. Repr. in Michelena, 1987, 195-219.
- , (1976): "Ibérico -en", *Actas del I Coloquio sobre lenguas y culturas prerromanas de la Península Ibérica*, 353-361, Univ. de Salamanca, Salamanca. Repr. in Michelena, 1985, 379-387.
- , (1979): "La langue ibère", *Actas del II Coloquio sobre lenguas y culturas prerromanas de la Península Ibérica*, 23-29, Univ. de Salamanca, Salamanca. Repr. in Michelena, 1985, 341-356.

- , (1985): *Lengua e historia*, Paraninfo, Madril.
- , (1987): *Palabras y textos*, Universidad del País Vasco, Leioa.
- , (1988): *Sobre historia de la lengua vasca*, 2 vols., ed. J. A. Lakarra, Diputación de Gipuzkoa, Donostia (ASJU-ren gehigarriak 10).
- Mukarovsky, H., (1963/64): “Baskisch und Berberisch”, *Wiener Zeitschrift für die Kunde des Morgenlandes* 59/60, 52-94.
- , (1969): “Baskisch-berberische Entsprechungen”, *Wiener Zeitschrift für die Kunde des Morgenlandes* 62, 32-51.
- , (1981): “Einige hamitosemitische und baskische Wortstämme”, *Berliner afrikanistische Vorträge (Serie A: Afrika)* 28, 103-118.
- Poça, A. de, (1587): *De la antigua lengua, poblaciones y comarcas de las Españas, en que de paso se tocan algunas cosas de la Cantabria*, Mathias Mares, Bilbao, [= A. Rodríguez Herrero, Madril, 1959].
- Ricci, S. de, (1903): “Notes d’onomastique pyrénéenne”, *Revue Celtique* 24, 71-83.
- Román del Cerro, J. L., (1993): *El origen ibérico de la lengua vasca*, Aguaclara, Madril.
- Ruhlen, Merritt, (1991): *A Guide to the World’s Languages*, 2. ed. Edward Arnold, Londres.
- , (1992): “An overview of genetic classification”, *The Evolution of Human Language*, ed. John Hawkins & Murray Gell-Mann, 159-189, Addison- Wesley, Redwood City, CA.
- , (1994a): *On the Origin of Languages: Studies in Linguistic Taxonomy*, Stanford university Press, Stanford.
- , (1994b): “An overview of genetic classification”, in Ruhlen 1994a, 9-38. [= 1992].
- Scaliger, J. J., (1599): *Diatriba de Europaeorum linguis*, Paris.
- Schmid, Wolfgang P., (1987): “‘Indo-European’ ‘Old European’ (On the reexamination of two linguistic terms)”, *Proto-Indo-European: The Archeology of a Linguistic Problem. Studies in Honor of Marija Gimbutas*, ed. S. N. Skomal & E.C. Polomé, Institute for the Study of Man, 322-338, Washington, DC.
- Schuchardt, H. (1908): *Die iberische Deklination*, Viena.
- , (1913): “Baskisch-hamatische Wortvergleichen”, *Revista Internacional de los Estudios Vascos* 7, 289-339.
- Shevoroshkin, V. (ed.) (1991): *Dene-Sino-Caucasian Languages*, Brockmeyer, Bochum.
- Starostin, S. A. & Merritt Ruhlen, (1994): “Proto-Yeniseian reconstructions, with extra-Yeniseian comparisons”, in Ruhlen 1994, 70-92.
- Swadesh, M. (1972): *The origin and diversification of Language*, Routledge, Londres.
- Tovar, A., (1949): *Estudios sobre las primitivas lenguas hispánicas*, Univ. de Buenos Aires, Buenos Aires.
- , (1950): *La lengua vasca*, Biblioteca Vascongada de los Amigos del País.
- , (1951): “Léxico de las inscripciones ibéricas (celtibérico e ibérico)”, *Estudios dedicados a Menéndez Pidal*, vol. II, 273-323, Patronato Marcelino Menéndez y Pelayo, Madril.
- , (1954): “El sufijo -ko: indoeuropeo y circumindoeuropeo”, *Archivio Glottologico Italiano* 39, 56-64.
- , (1959a): *El euskera y sus parientes*, Ediciones Minotauro, Madril.
- , (1959b): “Lenguas prerromanas no indoeuropeas: testimonios antiguos”, *Enciclopedia lingüística hispánica*, vol. I, 5-26, Madril.
- , (1961): *The Ancient languages of Spain and Portugal*, New York.
- , (1970): “The Basque language and the Indo-European spread to the west”, *Indo-European and Indo-Europeans*, ed. George Cardona, Henry Hoenigswald & Alfred Senn, 267-278, Univ. Of Pennsylvania Press, Philadelphia.
- , (1980): *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*, Alianza, Madril.

- , Karl Bouda, René Lafon, Luis Michelena, W. Vycichl & Morris Swadesh, (1961): "El método léxico-estadístico y su aplicación a las relaciones de vascuence", *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* 17, 249-218.
- Trask, R. L. (1990): "The -n class of verbs in Basque", *Transactions of the Philological Society* 88 (1), 111-128.
- , (1995): "Basque and Dene-Caucasian: a critique from the Basque side", *Mother Tongue*.
- , (1997): *The History of Basque*, Routledge, Londres.
- Trombetti, A., (1925): *Origini della lingua basca*, Memorie della R. Accademia delle Scienze dell'Istituto di Bologna, Bologna.
- Uhlenbeck, Ch. C., (1923): *Over een mogelijke verwantschap van het Baskisch met de palaeo-kaukasische talen*, Amsterdam.
- , (1924): "De la possibilité d'une parenté entre le basque et les langues caucasiques", *Revista Internacional de los Estudios Vascos* 15, 565-588.
- , (1927): "Die mit b- anlautenden Körperteilnamen des Baskischen", *Festschrift Meinhof*, Hamburg.
- , (1940-41): "Vorlateinische indogermanische Anklänge im Baskisch-en", *Anthropos* 35/36, 202 ff.
- , (1946): *Gestaafde en vermeende affiniteiten van het Baskisch*, Amsterdam. Frantsesez "Affinités prouvées et présumées de la langue basque", *Revue d'Etudes Basques* 1, 171 hh., 1947.
- , (1947): "La langue basque et la linguistique générale", *Lingua* 1, 59-76.
- Vennemann, Th., (1993): "Zur Erklärung bayerischer Gewässer- und Siedlungsnamen", *Sprachwissenschaft* 18, 425-483.
- , (1994a): "Linguistic reconstruction in the context of European prehistory", *Transactions of the Philological Society* 92 (2), 215-284.
- , (1994b): "Der name der Landeshauptstadt München", *Literatur in Bayern*, September, 2-7.
- Vogt, H., (1942): "La parenté des langues caucasiques", *Norsk Tidsskrift for Sprogvidenskap* 9, 321-338.
- , (1955): "Le basque et les langues caucasiques", *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris* 51, 121-147.
- Watkins, C., (1969): "Indo-European roots", Appendix to *The American Heritage Dictionary of the English Language*, 1505-1550, American Heritage & Houghton-Mifflin, Boston.